

# Mobilizazioaren teoria soziologiko berri baten zirriborroa

**Eguzki Urteaga**  
**Soziologian lizentziatua**

Artikulu honek ohar bat du abiapuntutzat, hots, mobilizazioaren teoria “klasikoak” ez direla fenomeno bere osotasunean jorratzeko gai, maiz ikuspegi partziala, aldebatekoa zein unidimentsionala baitu. Hori dela eta, gure nahia mobilizazioaren teoria berri baten osatzea da, zirriborro-mailan gelditu arren. Izan ere, teoria hau, teoria klasikoen filiazioan eta hausturan inskribatzen da, batetik, teoria horien kritikak oinarrituak baitira, eta bestetik, paradigma berri baterantz baitoa.

Mobilizazioa bere osotasunean hartuz, perspektiba “multi-dimentsional” baten bidez jorratzen ahalegintzen da artikulua, maila mikro eta makrosoziologikoak integratuz, eta bereziki haien harremanak pentsatuz. Halaber, metodologia konprentsiboan oinarrituz funtsean, errealitatearen ikuspegi dinamikoari ekiten dio, determinanteak gabe prozesuak hobetsiz eta analisis ardatz longitudinal batean ezarriz.

This article starts with a remark, which is that classical theories about mobilization are not able to analyse the phenomenon in his totality, having often a partial, unilateral and unidimensional vision. Because of that, it is time to constitute a new theory about mobilization, in spite of staying at an outline level. Indeed, this theory keeps with the filiation and rupture of classical theories; on the one hand, because its critiques are well-founded, and on the other hand, because we approach to a new paradigm.

The article tries to analyse mobilization by a “multidimensional” perspective, taking it in his totality, integrating the micro and macro-sociological levels, and specially, thinking of their relationship. In the same way, based essentially in a comprehensive methodology, it insists on the dynamic vision of the reality, preferring processes to determinants and putting the analysis on a longitudinal axis.

## Sarrera

Hasiera batetik, esan dezagun, artikuluen helburua mobilizazioaren teoria soziologikoei buruzko hausnarketak bat egitea dela. Zehatzago izanez, teoria "klasiko"-en kritiken ildotik edo kritika horiek oinarritzat hartuz, mobilizazioaren teoria berri bat osatzen ahaleginduko gara. Horrez gain, izenburuak berak dioen bezala, gure helburua ez da teoria itxi zein behinbetiko bat osatzea, baizik eta perspektiba berezi bat jorratzeko eta sakontzeko gonbidapen bat egitea.

Baina urrunago joan baino lehen, mobilizazio kontzeptuaren lehen definizioa ematea ezinbestekoa zaigu, aztergaia hobeki ulertu ahal izateko. Chazel-en definizioa gureganatzen badugu<sup>1</sup>:

Mobilizazioa engaiamendu zein identifikazio berrietan oinarritzen da, bai eta aktore zein aktore-taldeen biltzean ere, mugimendu sozial baten koadroan; beharrez, tokian dauden autoritateei aurka egiten diena, bortizkeriaren bidez edo ez, helburu kolektibo batzuk berriztatu edo eragiteko (Chazel 1975).

Hori dela eta, mobilizazio kontzeptua eta ez mugimendu soziala hobetsi dugu teoria kalifikatzerakoan, azken hau mobilizazioaren koadroa baita, eta, Chazel-en aholku edota norabidea jarraituz, «fenomeno horiek prozesu-terminotan aztertu behar baitira eta ez substratu-talde batzuk bezala» (Chazel 1992: 266).

Zerk esplikatu dezake, ordea, teoria eta beraz problematika berri honen sortzearen nahia edota beharra?

Ohar batetik abiatu beharrez aurkitzen gara, hots, 60.eko hamarkada ostetik eta 80.eko hamarkadaren amaiera arte, mobilizazioei buruzko teoria eta paradigma desberdinek garapen autonomo eta paraleloak izan dituztela. Atlantikoaren bi aldeetan tradizio soziologiko desberdinak izan dira nagusi: batetik, "errekurtsoen mobilizazioaren teoria" deiturikoa, eta bestetik, "paradigma identitarioa", bere garaian "mugimendu sozial berrien paradigma" izenpean ezagutua<sup>2</sup>.

Garapen paralelo eta autonomo honen arrazoia bikoitza da: batetik, materiala, eta zehazkiago material linguistikoa; eta bestetik, teorikoa, soziologoek ustez Europa zein Estatu Batuetako mugimendu sozialak izaera desberdinekoak baitziren. Egia esan, paradigmak arteko elkar-komunikazio eta eragin ezaren arrazoia ideologikoa da maiz.

Horren ondorioak ezagunak dira, hots, teoria eta oro har paradigma bakoitzak mobilizazioaren ikuspegi partziala, alde batekoa eta unidimentsionala ematen duela, analisi orokor eta multidimentsional baten falta nabari delarik. Hala nola, European (Touraine-ren obra eta perspektibara mugatuz), perspektiba makrosoziologikoa edota estrukturala izan da nagusi, Estatu Batuetan, berriz, aktore soziala eta dimentsio mikrosoziologikoa. Gisa berean, batzuek mobilizazio kolektiboa irrazionaltzat jotzen zuten bitartean, besteek, maiz erreakzioz, razionalitatean ekiten zioten.

Egoera horren aurrean, azken hamar urte hauetan, hainbat soziologo hutsune hori betetzen saiatu dira, go-

1. Artikulugileak euskaratuak dira aipamen guztiak.

2. Bi paradigma horiei hiruugarren bat gehitu behar zaie, hots, "jarrera kolektiboaren teoria", azken hau 40 eta 60.eko hamarkada artean kokatzen bada ere.

rago aipatutako paradigmak komunika-raziz batik bat. Perspektiba hori defendatzen duten ikerketa eta argitarape-  
nen artean, Lapeyronnie (1988), Mann (1991), Chazel (1992) edota Fillieule eta Péchu-renak (1993) aipa daitezke. Zentzu horretan, badirudi “errekonziliazio teoriko” baterantz goazela, zeina mikro eta makrosozio-  
logiaren heinak integratzen saiatzen den. Alabaina, integratze eta oro har sintesi nahi hori, maiz, asmotan baizik ez da gelditu, Klandermans eta Tar-  
rowren kasuan bezala (Chazel 1992: 306-307).

Hori dela eta, neure burua eta lana optika horretan jarri nahi nituzke, Chazel-en ildotik, perspektiba “multidi-  
mensionala” jorratu eta sakontzen saiatuz, are eta gehiago gaur egun, non mobilizazioaren soziologia transi-  
zio-garaian dagoen.

Sarrera honekin amaitu baino lehen, planoaren aurkezpen gisa, esan deza-  
gun, lehen zati batean mobilizazioari buruzko teoria “klasiko” garrantzitsue-  
nak jorratuko ditugula aurkezpen kritiko eta labur baten bidez. “Jarrera kolektiboaren teoriak” “kontagio” zein “konbergentzia” eredu-  
ekin aztertuz lehenik, “errekurtsoen mobilizazioaren teoriak” eta zehatzago izanez Obers-  
chall (1973) eta Tilly-ren (1978) teoriak ondoren, eta azkenik, europar eta ho-  
beki esanda frantziar funtsezko para-  
digma, hots, “paradigma identitarioa” edota “mugimendu sozial berrien teoriak”.

Bigarren zatian, ordea, teoria horien mugak direla eta, mobilizazioaren soziologia berri edota sintetizatzaile baten zirriborroa egiten saiatuko gara, maila mikro eta makrosoziologikoak lotuz. Lehenik, mugimendu bat agertzeko modalitate eta baldintzak

zein diren ikusiko dugu, ondoren, mobilizazio indibidualetik mobilizazio kolektibora nola pasatzen garen aztertuko dugu, edo bestela esanda, nahi indibidualak nola agregatzen diren, eta azkenik, mugimendu bat existitzeko, garatzeko edota desager-  
tzeko arriskuak zein diren, edo mugimenduak inguramenarekin dituen harremanak zein diren.

## **Mobilizazioaren teoria klasikoen aurkezpen kritikoa**

### **1. Jarrera kolektiboaren teoriak**

Jarrera edo konportamendu kolekti-  
boaren teoriaren azterketa kritikora iritsi baino lehen zenbait ohar egitea beharrezkoa iduritzen zaigu.

Lehenik, Chazel-ek azpimarratzen duen bezala, bi hamarkadaz argitaratu edo plazaratu diren ikerketen artean homogenitatez ez dagoela, hau da, Bigarren Mundu-Gerra ostetik eta 60.eko hamarkadaren amaiera arte. Zentzu horretan, paradigma batez baino erreferentzi koadro dominante batez hitz egitea zuzenagoa dirudi, jakinik, adibide bat hartzeko, interak-  
zionario sinboliko zein estruktura-fun-  
tzionalismoaren lanak biltzen dituela.

Bestalde, paradigma zentral bateki-  
ko atxikimendu komun bat ezin aipa badaiteke ere, erreferentzi koadro horrek hainbat teorizatzaile beren ikerketetan elementu psikosoziologi-  
koak kontutan hartzera eramaten ditu, beren teorietan integratuz, masen teoria adibide delarik.

Horrez gain, jarrera kolektiboko teo-  
rien puntu komuna, dimentsio psiko-  
soziologikoei emandako garrantzia da, izan ere, dimentsio horiei emandako

arretak sortzen baitu teoria horien batasuna.

Azkenik, teorien kopurua eta desberdintasuna dela eta, batzuen pribilegiatzera behartuak izan gara. Hala ere, ahalik eta errepresentagarrienak jorratzen saiatu gara edota modu errepresentagarrienean.

### 1.1. "Kontagio"-aren teoriak

Jendetzen<sup>3</sup> psikologian interesatu diren lehen autoreek, "imitazio", "kontagio mental edo moral" zein "sugestio" kontzeptu edo hobeki esanda nozioak erabili dituzte. Lan horiek, ñabardurez gain, ideia komun bat daukate, hots, «jarrerak, emozioak, sentimenduak, indibiduo batetik bestera komunikatzen direla eta, hedatuz, biderkatzen eta sendotzen direla» (Mann 1991: 14).

Ildo berari segituz, Le Bon-ek (1963), jendetza entitate originaltzat joko du, bere ezaugarriak zatietatik bereiziak edo independenteak direlakoan. Izan ere, jendetza iraultzailea edo audientzia bateko epaimahaia izan dadila,

kolektibo barnean den indibiduo batek ezagutzen dituen aldaketak berdinak dira: indibidualitatea osotasunak irensten du, heterogeneitatea homogeneitatean itozten da eta kalitate inkonzienteeek jendetza dominatzen dute (Mann 1991: 14).

Le Bon-ek, bestalde, manipulazioaren garrantzian ihardukitzen du, zeren eta, honen ustez, «jendetzaren jarrera hala bada, aitzindarien hipnosipean daudelako da» (Mann 1991: 14). Hori dela eta, aitzindari okasional edo profesionalak agitazioen sortzaile bezala kontsideratuak dira, gero

agitazio edo mobilizazioa berez heda badaitekeere. Gisa berean, Tarde (1901), ogibidez jurista izanik, jendetzetan dauden gizonen erantzukizun penalez interesatu denez, bakoitzarena zehazten saiatuko da Le Bonen emaitza beretara iritsiz, aitzindarien erantzukizunari dagokionean behintzat.

Horrez gain, autore horien aburuz, indibiduen erakarpena taldearekiko gero eta handiagoa izanen da, mugimenduaren indarrak potentzi senti-mendu bat sortuko baitu horiengan, bakoitzaren erantzukizuna taldearen anonimatoan diluituz edo urtuz. Horrenbestez, jendetzaren menpe izanik «indibiduoek elkar eragingo diote beren instintuen basakeriari mintzaraziz» (Mann 1991: 14).

Tarde-ri (1901) dagokionez, jendetzen fenomeno bere teoria soziologikoko kontzeptu zentralarekin, hots, imitazioarekin, esplikatzen saiatuko da. Izan ere, errealtate sozial guztia imitazioaren gainean oinarriturik legoke, bestela esanda, imitazioa sonambulismo-forma bat izango litzateke, gizarte guztien esentzia. Hori dela eta, gizartea, izpirituen arteko harreman-multzo bat bezala ulertu beharko litzateke, imitazioa medioa delarik. Horrela, «imitazioak jendetza fenomeno baten sortzera lagun lezake».

Bestalde, Tarde, jendetza fenomenoetan ordena jarri nahian, fenomeno horien izaera zein mekanismoak ulertzen eta zehazten ahaleginduko da, eta jendetza desberdinen sailkapen baten osatzera darama horrek. Tarderen aburuz, bi jendetza mota izango lirateke: bata, "jendetza purua" deiturikoa, indibiduen agregazioaz edota batabestearen ondoan ezar-

3. Frantsesez *foule* nozioarekin itzul daitekeena.

tzeaz karakterizatua, eta bestea, "jendetza eginkorra", ideia, emozio eta sentimendu komunen gainean oinarritzen den komunitatea.

Azkenik, Blumer-ek (1946), jarrera kolektiboa jarrera espontaneo bezala kontsideratzen badu ere, perspektiba hori sakontzen eta osatzen saiatuko da. Bere ustez, «jendetza edo mota horretako mugimenduen sorrera erreakzio zirkular baten bidez esplika daiteke». Zehatzago izanez, prozesu kolektibo bat izango litzateke, bere barranean indibiduo bakoitzak estimulu edo kinada bat sortuko lukeena erantzun bat jasoaz besteen partetik.

Baina, Le Bon eta Tarde-ren teorie-tan imitazioa eta beraz kontagioa "automatikoak" baziren, Blumer-ek "elkarrekintza-prozesuei" ekiten dio, izan ere, gizakiak hitz egiteko ahalmena badauka eta esanahia elkarrekintzaren bidez lortzen bada, koordinazio kolektibo guztiak sinbolizazioaren bidez pasako dira. Perspektiba honetan, "erreakzio zirkular" prozesuaren bidez ondoez sozial bat hedatuko da indibiduo batetik bestera, eta aitzindari-ek prozesua aktibatuzeko funtzioa daukate.

Teoria eta oro har perspektiba horren muga eta ekarpenak azpimarratzen saiatuko bagina, lehenik alde positiboak aipatuz, esan genezake, Tarde-ri garai hartako biologismo dominatzaileari aurre egin izana ezagutu behar zaiola, gizonak berez edo sortzez ez direla kriminalak edo delinkuenteak kontsideratuz<sup>4</sup>, baina horretan bilakatzen direla, «gizartean bizitzeak indibiduo batzuk kriminal

bilakarazten dituela» esan nahi baita (Mann 1991: 15).

Bestalde, Tarde-ren aburuz, eta Le Bon-en esanen aurka joanez, modernitate ez da jendetzen garaia izanen publikoarena edo publikoena baizik. Hori dela eta, Tarde-k prentsaren garrantzia ikusi du publikoaren batasuna osatzerakoan.

Alabaina, Le Bon eta Tarde-ren kasuan bereziki, jendetza-fenomenoak eta oro har akzio kolektiboak nahitaez irrazionaltzat jotzen dituzte, ordenaren koadroan sartzen diren ekintzak eta noski instituzioenak soilik razionalitatez osaturik baleude bezala. Oro har, Blumer bereizketa hori murrizten saiatu arren, soziologo hauentzako, muga iraganezina dago jarrera instituzional eta jarrera kolektiboen artean.

Horrez gain, teoria horiek ez dakite eraginaren (kontagioa edo imitazioa) mugak definitzen, horretarako, Mann-ek nabarmentzen duen bezala, egitura sozialak eta beren eragina komunikazioaren prozesuan kontutan hartzea beharrezkoa delarik.

Azkenik, esan dezagun, Blumer kritika horren pean erortzen ez bada ere, Tarde-ren imitazioaren ikuspegiaren mugak Durkheim-ek (1963: 12) jada aipatu zituela. Izan ere, bere iritziz, «imitazioak ez du inoiz "egite sozial"-aren gauza esentzialik zein karakteristikorik adierazten».

Baina, kontagioaren teoriak perspektiba epidemiologikoan oinarritzen badira, ez ordea konbergentzi teoriak, beti jarrera kolektiboaren teoriekin jarraituz.

4. Jakinik, Tarde-rentzat jendetzetako partaideak kriminalak edo delinkuenteak direla nahitaez.

## 1.2. "Konbergentzia"-ren teoriak

Konbergentziaren teoriak, "modelo bolkaniko" izenaz ere ezagutuak, bi perspektiba teorikoren eraginpean aurkitu dira: bata, psikosoziologo amerikarrena, eta zehatzago izanez, Dollar (1939) eta Miller-ena, beren "frustrazio = agresio" ereduarekin, eta bestea, Marx eta Tocqueville soziologoena.

Izan ere, konbergentziaren teoriak, akzio kolektiboan sartzerakoan, taldearen partaideen "esperientzia identitate", azpimarratzen dute. Autore horien ustez, «indibiduen predisposizio komunak existentziak dinamika kolektiboa determinatzen du». Hori dela eta, mugimendu sozial eta oro har protestatzaileak tentsioen, ongiezaren edota frustrazioaren ondorio bezala interpretatzen dira, "frustrazio erlatibo" kontzeptuaren bidez.

Hala ere, "frustrazio erlatiboa" ez da egoera objektibo baten ondorioa soilik, dimentsio subjektiboak ere, eta beraz oharrenak ere funtsezko tokia dute, dimentsio objektiboa soilik hartuz, pobrezia handia adibidez ezingo baikenuke uler zergatik Sao Pauloko fabeletako jendea ez den errebelatzen. Gurr-en definizioari eutsiz, eta *Why men rebel* bere liburua (1970) erreferentziatzen hartuz, mobilizazio edo errebolta bat sor liteke baldin eta «aktoreak, beraiek ongi baloratutako itxaropenen eta lortzeko ahalmenen arteko desberdintasunaz (desfaseaz) ohartzen badira».

Ikuspuntu bera Marx eta Tocqueville-ren teorian aurkitzen dugula azpimarratzeaz gain, esan genezake, kasu honetan, frustrazioa ez dela hainbeste norberaren eta besteen egoeraren konparaketaren ondorioa, daukagunaren eta ongi baloratuetatik

lortzea posible iduritzen zaigunaren arteko desberdintasunaren ondorioa baizik.

Horrela, 60.eko hamarkadak "frustrazio erlatiboari" buruzko ikerketen garapena ikusi du, Davies-en (1962) "fenomeno iraultzaile"-ari buruzko lanarekin batik bat. Izan ere, Davies-ek, "J kurba" izenaz ezagututako lehen modelizazioa (B eredu) proposatuko du. Ereduak dioenez, mailen arteko desberdintasuna "margen onargarri" batzuetan mantentzen bada ez da iraultzarik izanen; aldis, aurrerakuntza-une bati krisi batek segitzen badio, indibiduen nahiak edo aspirazioak asetuko lirateke, iraultza bat sortuz.

Ondoren, Gurr, Davies-en eredu osatzen ahaleginduko da bi kasu gehituz: batetik, beharren asetzeko aukera murriztagoa delarik, itxaropenen testuinguru egonkor baten kasua (A eredu), eta bestetik, itxaropenen emendatzeko aukerarena, beharren asetze efektiboaren maila egonkorra delarik (D eredu).

Eredu bakoitza hartuz berriz, A eredu gizarte tradizionalan suertatzen diren iraultzei aplikatu dakieke, zeren, indibiduen aspirazioen heina egonkorra bada, uzta txar batek edo elikagaien prezio-igoera handiegi batek ezadostasun bat sor baitezake. Kasu honetan, ordena sozialak ez du legitimitaterik galtzen eta protestatzaileek ez dute helburutzat beste gizarte-mota batekin ordezkatzeko. Hemen, Bercé-k aztertutako 16 eta 17. mendeetako errebolta koka genitzake.

B ereduari dagokionez, Davies-ek iraultza errusiarra esplikatzen erabili du. 1861etik abiatuz, gizaki askearen estatutuaren lorpenak baserriarren aspirazioen emendatze bat eduki zuela

ondoriotzat erakusten du. Ikusiz ordea, erreforma politiko horrek ez zuela eraginik haien bizimoduan, eskualde industrializatueta joan behar izan zuten gero hobeen esperoan. Baina hor ere haien soldata eta oro har promesak galduz, desberdintasun handiegia sortu zen emantzipazioak sorturiko esperantza berrien eta egoera erreala- ren artean, iraultza tarritatuz.

Azkenik, D eredia garapen bidean dauden herriei aplikatu dakieke. Hain zuzen ere, pentsa genezake kulturen arteko konfrontazioak sinbolo eta balore europarrak zabaldu dituela, modernitate politiko zein ekonomikoaren eskakizunak sortaraziz.

Kritikara pasaz, ukaezina da, perspektiba teoriko honek eragin desmitifikagarria eduki duela, kontagioaren teoriak sortutako haustura dikotomikoa, hots, jarrera indibidual zein instituzional eta jarrera kolektiboen artekoa, arbuatzen baitu.

Bestalde, nire ustez behintzat bere ekarpen nagusia, subjektibitateari eta zehatzago izanez oharmenari eta sinesmenei emandako garrantzia da, dimentsio objektiboa garrantzitsua izan arren, indibiduen oharmena, hots, egoera bat, objektiboa edo ez, injustuztat jotzea ezinbestekoa baita mugimendu protestatzaile batean parte hartzeko.

Alabaina, Chazel-ek (1992: 281) azpimarratzen duen bezala,

ordena publikoaren nahasteak, mugimendu protestatzaileak eta oro har beraien ikergai diren jarrera kolektiboen forma guztiak, eredu "eruptibo" baten bidez aztertuak dira eta, zehatzago, "haserre-erupzio" baten bidez.

Horren ondorioetariko bat, aktoreen estrategiarako tokirik ez izatea da, Krisberg-ek (1973) aipatu duen moduan, «adierazten dituzten dolumen eta asetzerik ezaren ondoan, aktoreen estimazioak ere, ekintzaren lorpen xantzari dagokionez, kontutan hartu behar dira eta».

Horrez gain, teoria horien ustez, ados ez dauden edo haserre dauden indibiduen gehikuntza nahikoa litzateke protesta kolektibo bat sortzeko, mugimendu batean parte hartzeak motibazioen eta jarreraren homogeneitate bat suposatuko balu bezala. Beste era batera esanda, protesta kolektibo bat sortu ahal izateko motibazio bereko indibiduen agregazioa beharko litzateke. Ikuspegi "atomizatu" horrek, "akzio kidetuaren" funtsezko galdera saihesten du.

Azkenik, Mann-ek deritzon moduan, Gurr-ek eta oro har konbergentziaren teoriak eredu psikologikoa maila sozialera transposatu dute, betiko problematika edota galderak pausatuz, hau da, frustrazio indibidualak espresio komun batera nola konbergitzen diren...

Pasa gaitezen orain, jarrera kolektiboaren erreferentzi koadroko funtsezko bi korranteak aztertu eta muga zein ekarpenak ikusi ondoren, bigarren "paradigma" garrantzitsura, jarrera kolektiboaren aurka edo erreakzioz sortuko dena.

## **2. Errekurtsoen mobilizazioaren teoriak**

Errekurtsoen mobilizazioaren teoria edota paradigma 60.eko hamarkadaren hasieran agertzen da, laster, Esta-

tu Batuetan bereziki, paradigma dominatzaile bezala agertuz.<sup>5</sup>

Azpimarra dezagun, horrez gain, «errekurtsoen mobilizazioaren teoriak akzio kolektiboaren osagai razionala nabarmentzen duela», akzio kolektiboak eta oro har jarrera kolektiboak jarrera instituzionaletatik bereizi gabe.

Era berean, ez gaude gehiago ikuspegi “esplosibo” baten aurrean, mobilizazioa, gatazkan edo mugimendu sozialetan konprometitzen diren aktoreen antolaketa, eraikuntza eta giza baliabide zein baliabide materialen kaptazio-lan bezala agertzen baita.

Azkenik, perspektiba honek homogeneitatearik ez badu ere, aldaerak ukanik, paradigma kontzeptua erabil daiteke. Izan ere, Perrow-ek aipatzen duen gisara, funtsezko bi barne-korronte bereiz genitzake: bata, “korronte politikoa” Clausewitz-en ikuspegian inskribatzen dena, eta bestea, ekonomikoagoa, kostu- eta benefizio-terminoetan ari dena.

### *2.1. Korronte politikoa: Oberschall eta Tilly-ren teoriak*

Oberschall-en teoriari dagokionez, mobilizazioa gatazka-testuinguru batean inskribatzen da eta indarke-riaren bidez, behar izanez gero, autoritateen aurka agertzen diren oposatzaileen bilgune bezala definitua da. Alabaina, Oberschall-en aburuz, injustizia edo sufrimendu-egoera objektibo bat protestaren baldintza bat bada ere, mugimendu antolatu baten sorrerarako ez da nahikoa.

Izan ere, mobilizazio antolatu bat sortu eta eraiki ahal izateko «ezinbes-

tekoa da protestatzaileek eta, kolektibitateko barne-harremanek, beren ekin-tza eta oposaketa norabidetzeko aitzindariak edukitzea» (Mann 1991: 96). Beraz, mobilizazioa baldintza estruktural berezi batzuetan soilik gerta daiteke.

Horrela, bere mobilizazioaren eredu eraikitzeke, Oberschall-ek funtsezko bi dimentsio atxikitzen ditu: bata, “bertikala”, kolektibitateek boterearekin duten harreman edo sarbidea kontutan hartzen duena, eta bestea “horizontala”, mobiliza daitekeen kolektibitate bakoitzaren barne harremanen izaeraz dagokiona.

Dimentsio bakoitza berriro hartuz, zehaztekoan, gorengo kolektibitateekin harremanetan dauden kolektibitate guztiak dimentsio bertikalean integratuz jo daitezkeela esan genetzake. Integrazio-modalitateetan sartu gabe, horrek eskakizunen edota dolumenen kontu hartzea suposatzen du goi-kla-seetako eliteak bitartekari-funtzioa betetzen baitu. Kasu honetan, Oberschall-en iritziz, mugimendu oposatzaileen agerpena eskasa edo murrizta izanen da.

Alderantziz, botere-zentruetatik edo klase gorenetatik moztuak izanen diren kolektibitateak, “segmentatuak” deiturikoak, lehenak izanen dira mobilizatzen, haien eskakizunak erantzun gabe gelditzen baitira. Hori dela eta, «segmentazioa, protesta kolektibo baten agertzeko baldintza minimoa da».

Bestalde, dimentsio horizontalari dagokionez, mobilizazioen forma, kolektibitateen barne-antolaketari loturik dago, izan ere, Oberschall-ek

---

5. Mc Carthy eta Zald-ek erabili zuten lehenik “errekurtsoen mobilizazioa”-ren kontzeptua.



kolektibitate mobilizagarriak barne-harremanen izaeraren arabera sailkatzen edota aztertzen ditu. Hori dela eta, kolektibitateak egitura komunitario batean sustraiturik egon daitezke (familiakoa, etnikoa...) edo, alderantziz, bigarren mailako harreman-sare sendo batez hornituak, profesionala, politikoa edota ekonomikoa izan daitekeelarik (Oberschall 1973). Eta bi klase horiei Oberschall-ek beste bat gehituko die, hots, barne-harremanik eza, mobilizatzeko zailtasunak ukanen dituenak.

Horrenbestez, Oberschall, bi dimentsioak biderkatuz, bertikala eta horizontala alegia, sei kasuko tipologia eraikitzea iritsiko da.

Tilly-ren (Tilly 1978, Lapeyronnie 1988) teoria, bestalde, Oberschall-en konplementu edo osagarri bezala agertzen da, mobilizazioa, bere ingurumen sozio-politikoan inskribatuaz. Izan ere, Tilly-ren teoriak sistema politikoaren eta mobilizazioaren ereduak artikulatzen ditu.

Sistema politikoaren ereduari dagokionez, funtsezko hiru elementuz osaturik dago: gobernuak, baliabide zapaltzaileekin; partaide-taldeak, hots, boterera sarbidea daukaten taldeak; eta aurkariak.

Mobilizazio-ereduaren kasuan, bi dimentsiotan zatitzen da. Lehena, ekintza kolektibo eta taldeen barne-egiturari dagokiona. Hain zuzen ere, Tilly-ren (Mann 1991: 103) aburuz, «interes kolektiboen defentsak dira mobilizazioen sortzaile(ak)». Mobilizazioa, ekintza kolektibotik bereiziz, bizitza publikoaren elementu pasibotik aktibora doan prozesu bezala definitzen du, horretarako antolaketa beharrezkoa delarik, erakundeak, kolektibitate zehatz bateko aktoreen batze-

-funtzioa betetzen baitu, ekintza kolektiboak egin ahal izateko. Tilly-ren eredu eskematizatuz esan genezake: antolaketa = (taldearen batzea) + + (barne-harremanen sareen intentsitatea). Beraz, kolektibitatea antolatzen ez den bitartean eta erakundeak ongi erabiltzen ez dakien bitartean ezingo da mobilizaziorik izan.

Bestalde, Tilly-ren ereduaren bigarren dimentsioa mobilizazioaren aukera politikoei eta errepresio-arriskuei buruzkoa da, parte hartzearen kostu eta benefizio-perspektiba bereganatuz.

Orokorki esan daiteke baliabideen mobilizazioaren teoriak, eta zehatzago izanez, korrante politikoak, aurrerapauso bat suposatzen duela jarrera kolektiboaren teorien arabera. Atal honen sarreran azpimarratutako ekarpenez gain, Oberschall-ek dimentsio bertikal zein horizontalei esker osaturiko tipologia aipatzekoa da, mobilizazioen agerpenerako baldintza estrukturalak zehazten baititu. Ildo horri segituz, Oberschall-ek kolektibitate mobilizagarrien barne-harremanen eta oro har harreman-sareen garrantzia ikusi du mugimendu baten agertzeko orduan.

Horrez gain, Tilly-k sistema politikoari gorputz delako bat ematen dio, estatua eta talde desberdinez osaturikoa. Halaber, mobilizazioa edota mugimendua ingurumen politikoarekin elkarrekintzan jartzen du, sistema politikoaren ekintzaren garrantzia nabarmenduz, aukera politikoak ematea edo errepresioa izan dadin.

Hala ere, Oberschall-en kasuan bereziki, maila makrosoziologikoan soilik gelditzen dela esan beharra dago, zeren eta, kolektibitate mobilizagarrien ezaugarriei interesatzen

bazaie, dimentsio mikrosoziologikoa eta beraz aktorearen tokia alde batera uzten ditu. Era berean, mugimenduen agerpen-baldintzak bakarrik dagozkie, mugimenduen garapena jorratu gabe.

Bestalde, kritika hauek Tilly-ri doazkio gehienik, hain zuzen ere, aurkezten duen eredu politikoa ez baita biziki zehatza. Adibide gisa, gobernuko elitea edo klase politikoa eta publikoaren arteko harremanez ez digu ezer esaten. Horrez gain, inguramen sozio-politikoa sinplea edota gutxi mamitua dela ere onartu behar, hala nola komunikabideak, publikoa edota gizarte zibila ez baititu aipatzen.

Azkenik, Etzioni-ren (1968) kasuan bezala, Tilly-k ikuspegi "zentralista" bat garatzen du, mobilizazioa, akzio kolektibo baterako beharrezkoak diren baliabideen lortzeko, zentru batek eginitako deietara mugatzen baitu. Mobilizazio batzuk, ordea, 68ko maiatzean moduan, erakunde kontsolidatuetatik kanpo hasi eta antolatu dira.

Baina, Chazel-en oharra gureganatuz, hots, korronte politikoa dela gehien interesatzen zaiguna, batik bat korronte ekonomikoa eta akzio kolektiboaren paradoxa jorratzea ezinbestekoa zaigu.

## *2.2. Korronte ekonomikoa: Olson eta McCarthy/Zald-en teoriak*

Korronte ekonomikora etorriaz, esan dezagun Olson "akzio kolektiboaren logika" liburua (1965) plazaratzearekin, perspektiba horren sortzaile bezala konsidera daitekeela, batez ere, mobilizazioaren zailtasunez ohartu baita.

Perspektiba horrek indibiduoaren

razionaltasun instrumentala baieztatzen du, hautu baten aurrean indibiduoak kostu eta irabazien arteko balorazio edo hausnarketa bat egiten duela kontsideratuz. Rapport-ek azpimarratzen duen, aktorearen razionaltasunak ondoko kalkulua suposatzen du: «hau egiten badut, hori gertatuko da..., beste hau egiten badut, beste hori gertatuko da. Beraz, hau horri hobesten badiot, hau gertatuko da» (Rapport 1967).

Olson-en teoria ondorengo galderari erantzuten saiatuko da, hots, interes berdinak dituen kolektibitate batek nola ez duen nahitaez ekintza kolektiboan parte hartzen bere interesa asetzeko. Paradoxa horren erantzuna aurkitu nahian, ekintza kolektiboak onura kolektiboak ekartzen dituela dio azalpen gisa. Izan ere, onura kolektibo horien ezaugarri nagusia denen probetxurako izatea da, ekintzan parte hartu nahiz ez.

Gisa berean, ekintza kolektiboan parte hartzeak kostu handi edo txikiagoak suposatzen ditu, denbora, dirutza edota lanpostua galtzea, batik bat. Hori dela eta, parte hartzearen kostuak abantailak baino handiakoak balira, indibiduoak ez luke logikoki ekintza kolektiboan parte hartzeko inongo interesik.

Hala ere, hasiera batean jarrera horrek abantailatsua badirudi ere, indibiduo bakoitzak kalkulu bera egiten badu, protestarik eta beraz onura kolektiborik ez egoteko arriskua dago. Hori hala izanik, Olson-en aburuz, langile-klasearen apatiaren zergaitia ez legoke Marx-ek zioetan bezala klase burgesak ongi elikatutako "kontzientzia faltsu"-an, langilearen jarrera utilitario eta razionalean baizik.

Halaber, *free riding* jarrera, taldearen neurriaren arabera aztertu beharko litzateke, besteekin elkarrekintzan izateak hautuan eragina baitaika. Adibide gisa, talde handietan *free riding* jarrera maizen gertatzeko arriskua dago, «indibiduo baten ekarriak ez baitira, taldearen arabera, ohargarriak edota kide bakoitzaren eginbehar eta benefizioak murrizak baitira» (Olson 1978).

Ildo berari segiz, McCarthy eta Zald-en (1977) perspektiba Olson-ek plan-teatutako problematikan inskribatuko da, haien teoria “ekintza kolektiboaren paradoxa”-ri erantzun bat aurkitzen ahaleginduko baita, aspektu bakar horretara mugatzen ez bada ere.

Izan ere, soziologo hauek mugimendu sozialen antolakuntzaz interesatuko dira gehienik, mugimendu sozialaren heinaz beraz ezaxolatuz. Ikuspuntu honetatik, antolakuntza eta beraz erakundea funtsezkoak dira, azken hau, kostuen mugapena dakarren egitura baita. Hori dela eta, hausnarke-ta kostu eta benefizio-eskemaren arabera eramanez, ekonomiako “industria” eta “sektore” kontzeptuak mugimendu sozialei aplikatzen saiatuko dira.

Alabaina, teorilari horien funtsezko ekarpena paradoxari ekarritako erantzunean datza. Hain zuzen ere, zentrala den erakundeari beste bi elementu gehitu dizkiote: bata, “kanpoko laguntza”-rena, eta bestea, “enpresari politiko”-ena, elementu horien harremanak antolaketa bere garrantzia emanaz. Perspektiba honetan, «kexak eta mugimenduaren benefiziario potentzialak, baliabideak eta aktoreen prokurazeko ahalmena baino gutxiago hartzen dira kontuan» (Chazel 1992: 293).

Hori dela eta, McCarthy eta Zald-en arabera, mugimendu sozialen antolaketa, denbora joan ahala, geroz eta profesionalizatu eta burokratizatuagoa izango litzateke, batez ere, oraintxe esan dugun bezala, zuzendaritza, kanpotar buruzagi batzuek osatuko luke-telako eta balibabide gehientsuenak kanpotik etorriko liratekeelako.

Perspektiba teoriko honen aurkezpen laburraren ostean, esan daiteke, lehenik, Olson-en teoriak mugimendu sozial eta oro har ekintza kolektiboan parte hartzeari buruzko oztopoak argitan jarri dituela, erakutsiz, ongiez egoera edota injustiziaren oharmenak ez dakarrela derrigorrez mugimendu sozial batean parte hartzea.

McCarthy eta Zald-en teoriaren kasuan, bi interes-puntu aipa genitzake: bata, ekintza kolektiboaren paradoxara itzuliaz, Olson berriz «hanka gainean jartzera» iristen direla, haien espresioa erabiliz, eta bestea, mugimendu sozialei buruzko ideia onartuen aurrean, mesfidantza edukitzera bultzatzen gaituztela, horiek ez baitira beti, politika publikoen analisisan klasikoa den bereizketa berriz hartuz, *bottom up* logika batekin gidatuak, *top-down* logika batekin ere izan baitaitezke.

Hala ere, interes batzuk ukan arren, Kitschelt-ek azpimarratzen duen bezala, «aktore razional indibiduala ezin daiteke gehiago teoria sozial baten hastapena izan, bera mikro eta makro hainbat prozesuren elementu eta ondorioa baita» (Kitschelt 1991).

Bestalde, badirudi kategoria ekonomikoen traspasaketekin soziologo hauek bi helburu zituztela: bata, mugimendu sozialeko erakunde eta “indus-

tri"-en arteko konpetentzia erakustea, eta bestea, sektore berezi horren eta beste sektoreen artekoa, hots, eskaintza eta eskaeraren printzipioak, analogi joko horrek, ekonomia liberaleko ereduak gidatzen dituela argi uzten duelarik.

Azkenik, Chazel-i jarraituz (1992: 294-295), McCarthy eta Zald-en teoriak «mugimendu sozialen irudia "bortxatu" bat ematen du, 60.eko hamarkadako mugimendu protestatzaileei egokitzen ez zaiona». Halaber, Hirschman-ek (1983) historiaren ironia azpimarratuz, ondokoa nabarmentzen du: «hamarkada petral eta sozialki mugikor batean, Olson-ek ekintza kolektiboaren oztopoen gainean ekiten du».

Hain zuzen ere, 60.eko hamarkadak ezagutuko duen testuinguru sozial bereziak, hots, mugimendu sozial berrien agerpenak Europan eta oro har mendebalde guztian zehar, paradigma edota teoria berri baten sorrera bultzatuko du.

### **3. Paradigma identitarioa edo mugimendu sozial berrien teoria**

Sarrera gisa, esan dezagun, orain-txe aipatu bezala, mugimendu sozial berrien teoria, eta oro har paradigma identitarioa, testuinguru historiko zehatz batean inskribatzen direla. Hain zuzen ere, «gizarte industrialaren bihotzean zegoen langile-mugimenduak ez dirudi mobilizazio sozial handien monopoliorik duenik gehiago» (Dubet 1992). 60 eta 70.eko hamarkadak sortzen ikusi dituen mugimendu sozial berriekin.

Halaber, teoria hau pentsakera marxista dominatzailea zela agertu zen, azken horrekin eztabaida iraunkorra

edukiz, Chazel-ek (1992: 265) dioen gisara, «teoria hori ortodoxia marxistarekin eztabaidan ezarri behar da» eta. Izan ere, teoria marxistari hainbat kontzeptu hartzen badizkio ere, bere filiazioan inskribatuz, berataz bereizten da, klasea, mugimendua bilakatuko dena, ekintza eta gatazkaren bidez definituz eta ez gehiago hierarkia sozial edota produkzioaren arabera.

Bestalde, perspektiba teoriko honek, Europako lan gehien antzera, "dimentsio kultural"-ean ekiten du, ez objektuaren izaerari buruzko balorazio bat balitz bezala, baizik eta, ikerlari batzuek beren koadro interpretatibo eta tresna kontzeptualetan dimentsio analitiko berezi bati ematen dioten toki edota garrantziagatik.

Azkenik, teoria hau maila estruktural edota makrosoziologiko batean ezartzen da, eta zehatzago izanez maila "sozietalean", mugimendu sozialaren dimentsioa ez soilik jarrera kolektiboan, baizik eta, soziologia orokorren zentroan jarritz.

#### *3.1. Touraine-ren teoria*

Touraine-k bere soziologia orokorrean mugimendu sozialei ematen dien tokiari buruz, ohartaraz genezake, berak esaten duen bezala «analisi soziologiko guztia "mugimendu sozial" ideia inguruan berrantolatatu behar dela» (Touraine 1978: 104), gaur egun ere ikuspuntu bera atxikitzen duelarik, Rutch-ek azpimarratu duenez.

Horrez gain, Tourainen analisia funtsezko sei kontzepturen inguruan antolatzen da, hau da: historizitatea, ekintza historikoaren sistema, klase-harremanak, sistema instituzionala, antolaketa soziala eta mugimendu soziala.

Baina, muga espaziala dela eta, mugimendu sozial kontzeptua soilik zehaztuko dugu. Izan ere, mugimendu soziala honela defini daiteke: «jarrera kolektibo antolatua klase-ekintza bezala, klase aurkari baten kontra gudukatzen duena historizitatearen gidaritza sozialarendako, kolektibitate konkretu batean» (Touraine 1978: 104).

Bestalde, Touraine-ren aburuz, gizarte batean, ekintza-sistema historiko batean beraz, mugimendu sozialen bikote antagoniko printzipal bat soilik existitzen da. Ikuspegi hori, Chazeli segituz gero, postulatu batean oinarriturik legoke, hots: «gizarte zehatz batean, gatazka zentral bat legoke, mugimendu sozialen bikote antagonikoak adieraziko lituzkeena» (Chazel 1992). Hori dela eta, akzio kolektibo mota hori beste guztien atzean xerka beharko litzateke, bestela esanda, ekintza kolektiboaren forma guztien atzean mugimendu soziala den elementu zentralaren bila joan beharko luke.

Horrez gain, Touraine-ren iritziz, mugimendu soziala beste ekintza kolektiboaren formatatik bereizi beharra legoke, izan ere, ekintza kolektibo guztien artean klaseko gatazka ez baita, autoritateen aurkako erresistentzia edo instituzioen aurkako presioekin nahasi behar.

Bestalde, mugimendu soziala hiru elementuren konbinazioarekin defini daiteke, identitate, oposaketa eta osotasun printzipioekin, alegia. Printzipio horien konbinazioen aldakuntzek mugimendu sozial desberdinak edota azken hauen egoera desberdinak karakterizatuko dituzte.

Azkenik, nabarmen dezagun mugimendu sozial batek ideologia bat ematen duela, hau da, «harreman sozialen errepresentazio bat; honez gain utopia bat ere produzitzen du, bere bidez borrokaldian "jokoan dagoena"<sup>6</sup>, historizitate berari, berau identifikatuz» (Touraine 1978: 129)

Baina, Touraine-ren teoriaren interesa ez dago mugimendu sozialen karakterizazio edota definizioan soilik, baita proposatzen duen metodologian ere. Izan ere, praktikaren kategoria dominatzaileen menpe ez izateagatik Touraine-k interbentzio soziologikoa landu eta praktikan jarriko du.

Metodologia horrek soziologoaren eta objektuaren arteko harremanaren ikuspegi berezi bat suposatzen du, soziologoari mugimenduen arabera errol aktibo bat emanez. Touraine-k berak (1974: 236) dioenez,

soziologiaren helburua gizartea aktibatzea da, bere mugimenduak agertaraztea, haien sorrera laguntzea, batasun substantibo bat inposatzen duen dena suntsitzea.

Metodoari dagokionez, obserbazio partalierra eta metodo historikoa erabiltzen ditu, jakinik, Touraine-ren helburua ez dela jokaerak aztertzea, jokaeren sorreran dauden egoerak baizik.

Kritikara pasa baino lehen, Touraine-ren teoriari bi funtsezko ekarpen ezagutu behar zaizkio. Alde batetik, dimentsio kulturalari emandako garrantzia, baloreen aldaketan arreta berrituan isladatzen dena. Izan ere, hainbat ikerketa enpirikotan<sup>7</sup>, mugimendu

6. Frantsezez, *enjeu* nozioarekin itzultzen dena.

7. Horien artean, ikasle-guduak (1978), mugimendu antinuklearra (1980), mugimendu okzitanoa (1981), "solidarité" (1982), langile-mugimendua (1984) edo mugimendu feministaren azterketak aipa ditzakegu.

mendu sozial berrien sorrera eta baloreen hierarkiaren aldaketen arteko lotura erakutsi du, baita mugimendu sozialetan edota gatazketan jokoan dagoena eredu kulturala dela ere.

Eta bestetik, Touraine-k, historizitate kontzeptua dela medio, mugimendu sozialak historizatzen ditu, hots, mugimendu sozialak testuinguru historiko zehatz batean ipintzen dituenaz gain, aktore historiko edota historiaren aktore bezala ikusten ditu. *La voix et le regard*-en azpipartearen izenburuak dioen bezala: «Gizonek beren historia egiten dute».

Alabaina, Touraine-ren definizioa murriztaileztat jo daiteke, langile-mugimendua eredutzat hartu baitu. Hori dela eta, “benetako” mugimendu sozial baten xerkan berak gidatu dituen ikerketen konklusio negatiboak ez dira harrizkeoak. Egia esan, definizio herstaile horren arrazoia Touraine-ren sinesmen edota apostu batean datza, hau da, gizarte programatuaren ondorioz mugimendu sozial zentral baten sorrera, langile-mugimendua gizarte industrialean izan zen bezala.

Horrez gain, teoria honek ez du politikoa integratzen. Duyvendak-ek nabarmendu duenez, estatuak ez du errol garrantzitsurik bere mugimendu sozialen analisian, politikariak mugimendu sozialengan eduki dezakeen eragina arbuatzen baitu. Izan ere, Touraine-ren aburuz, mugimendu sozialak daramatzan guduen lekua, gizarte zibila alegia, funtsean “ez-estatikoa” litzatekeelako.

Azkenik, bere metodologiaren helburuetan agertzen duen gisara, Touraine-ren proiektua jokaeren sorreran dauden egoeretara itzultzea da, hau da, mugimenduen sorreren baldintza

estrukturaletara, aktoreen jokaerak egoera makrosoziologikoetatik deduzituz. Gisa horretan, maila mikrosoziologikoa alde batera uzten du.

Baina, Touraine-ren filiazioan inskribatzen bada ere, ikuspegi orokorra partekatuz, Dubet-ek bere azken lanean, hots, *Sociologie de l'expérience*-ean, teoria propio bat garatzen du, Touraine-z hainbat kasutan bereiziz.

### 3.2. Dubet-en teoria

Dubet-en teoriara etorriaz ondoko ideia azpimarra genezake, hots, soziologo honen iritziz, mugimendu sozialek beren toki eta garrantzi historikoa galdu dutela. Berak dioenez (Dubet 1992: 69),

MSB-ak, 1968aren ostean, kulturaren kritika arradikal eta haustura politikoa-  
ren testuinguru batean sortu dira, gai kultural berriak eta ezkertiaritasun politikoa lotu nahian. Ebidentzia guztiz, klima horretatik urrun gaude.

Azalpen gisa, Dubet-ek (1994: 214), «historia sozial berriaren azterketaren arabera, mugimendu sozial berrien desmenbraketa beren egoera “normala” dela» kontsideratzen du, langile-mugimendua, historia sozialari begira, salbuespen bezala ikusiz. Hori dela eta, gizarte programatuarekin mugimendu sozial antagonikoen bikote baten sorreraren aukera urruntzen du.

Bestalde, horretan ere Touraine-rengandik bereizten da, errealitate sozialean zentzurik edo “zentralitate”-rik ez dagoela dio, “Gizartea” bera ez baita esfera desberdinen integratzera iristen. Beraz, «printzipio zentral baten inguruan antolatutako ekintza sozialeen errepresentazioa onartezina den unetik, sistema autozentratuaren ideia-

ri ere uko egin behar zaio» (Dubet 1994: 151) zentralitate-erik-eza mugimendu sozialetan isladatzen delarik, ez baitira gehiago gatazka zentral baten inguruan artikulatzen.

Horrez gain, mugimendu sozial garaikideek funtsezko bi ezaugarri izango lituzkete: batetik, jokoan daudenen (*enjeux*) eboluzioa, eta bestetik, haien desegitea edota leherdura. Jokoan daudenen eboluzioari dagokionez, soziologo gehientsuenek bezala, Touraine barne, Dubet-ek kontsideratzen du, mugimendu sozialak gaur egun espresibitate-eramale direla instrumentalismoari aurre eginez. Beste modu batera esanda, mugimendu sozialek beren esperientzia subjektiboa edo espresibitate, sistemaren edo erakundearen logika instrumentalari oposatzen diote. Bestalde, mugimendu sozialak desegiten ariko lirake, ez baitira, langile-mugimenduaren antzera, ekintza-logika desberdinen integratzeko gai; Frantziako mugimendu feminista edo ekologista honen frogak bide dira.

Hori dela eta, Dubet-ek kontzeptu berri bat sortuko du, hots, "aktorearen lana". Izan ere, mugimendu sozialen ezaugarria ekintzaren dimentsio guztien hierarkizatu eta artikulatu nahia da. Baina, «nahi hori ez dago aktorearen lanetik kanpo, ez dago militantearen ekintza autonomo eta integratu bat eraikitzeke desiratik kanpo» (Dubet 1994: 77).

Zentzu horretan, deseginak edo lehertuak diren mugimendu sozialak halakoak dira esanahi desberdinen lotzeko eta beren nahi beti berrituagatik, aktorearen lana mugimendu sozialen funtsezko osagai edota eginkizuna

dela esan nahi baita. Beraz, ekintza-logika desberdinez osaturik eta zatiturik dagoen mugimendu soziala, logika desberdinen artean konposatzen ibili behar da batasun delako bat eraikitzen saiatzeko, horrek, barne-negoiazio, aukera, dilema edota artikulatzeko edo egokitzeko ahaleginak suposatzen dituelarik.

Azkenik, politikoari ematen dion tokiari dagokionez, esan genezake, mugimendu sozialen sorreran zein garapenean politikoaren parte hartzeari ardurarik ez diola ematen, izan perspektiba hexagonalean (Frantzia mailan) non mugimendu sozialak berez aztertzen dituen politikarekin harremanetan jarri gabe, edo analisi konparatiboan, non, Duyvendak-ek nabarmendu duen bezala, nahiago dituen «faktore sozial zein kultural komunak azpimarratu» (Dubet 1992: 142; Duyvendak 1992), kontsideratuz<sup>8</sup>, mugimendu sozial berrien historia aztertzerakoan, antzekotasun harrigarriak zeudela.

Oro har, Dubet-en teoriari funtsezko bi ekarpen ezagutu ahal diezazkiokegu. Alde batetik, mugimendu sozialak logika-ekintza edota joera desberdinez osaturik eta zatiturik daudela erakusten baitu, eta horiek tentsio-harremanak dauzkatela, mugimendu soziala, gatazka eta aliantza-sistema bat bezala osatua dela suposatuz. Horren aurrean, mugimendu sozial bakoitza "aktorearen lana" egitera eramana da barne-batasuna mantendu ahal izateko.

Eta bestetik, gatazka zentrala eta oro har zentralitatearen ideia errefusatzear gain, gaurko mugimendu sozial

8. Alemania eta Frantziako mugimendu sozial berrien arteko parekotasuna dudak jar daiteke, egonez gero, desberdintasunak handiagoak baitira; horrek, estatuaren egitura eta oro har sistema politiko bakoitzaz interesatzerak bultzatzen gaitu.

garaikideen ezaugarriak azpimarratu ditu, jokoan daudenen aldaketa, espresibitate/instrumentalismo bikote antagonikoaren itzulerarekin, eta baita mugimendu sozialen desegite edo leherdura ere.

Hala ere, bere historia sozialaren ikuspegia, hots, mugimendu sozial berrien, desmenbraketa, beren egoera "normala" dela, kritikagarria da, Europako beste hainbat herritan MSB-ek protagonismo handia edukitzen segitzen baitute, Euskal Herrian bezala, mugimendu abertzale, feminista, antimilitarista edota bakezalearekin. Horrez gain, gerora begira pentsa genezake, mugimendu sozial batzuk esperientzia sozial integratu baten osatzera irits daitezkeela, are gehiago gaur egun, mugimendu identitarioen berrikuntza ikusiz, politikoak, erlijiosoak nahiz kulturalak direla ere.

Eta bestalde, politikoari, eta zehatzago izanez estatuari mugimendu sozialen sorrera eta garapenean garrantzirik ez emateaz gain, Dubet-en metodologia (Touraine-ren parekoa) "ganbarako esperimentazio historiko" bezala ikus daiteke. Halaber, interbentzio soziologikoa datuak biltzeko modu aproposa bada ere, denboran inskribatzen baita batez ere, horrek ez du esan nahi, Durand eta Weil-ek (1993) dioteenez, metodo tradizionalak baino hobea denik.

Oro har, azpimarratzekoa da, lehen esan bezala, mobilizazioaren soziologiako paradigma bakoitza berez ez dela fenomeno osotasunean hartzera iristen, maiz dimentsio bat edo bestea pribilegiatuz. Hori dela eta, ez al litzateke analisi multidimentsional baterantz jo behar?

## **Mobilizazioaren teoria berri baten zirriborroa**

Sarrera gisa, esan dezagun lehenik, orain arte egindako kritika positibo zein negatiboetan oinarrituz, mobilizazioaren soziologia berri baten eraikitzea dugula helburu. Honela, teoria hau paradigma "klasiko"-en filiazioan bai eta hausturan inskribatzen da, alde batetik teoria horien kritikak oinarrituak baitira, eta bestetik, Fillieule-k azpimarratzen duen bezala, paradigma berri baterantz baitoa eta ez soilik dauden paradigmen moldatzera.

Halaber, teoria honen nahia analisi "multidimentsionalean" datza, dimentsio analitiko guztiak ezagutuaz eta haien interdependentzia enpirikoa erakusten saiatuz. Hori dela eta, maila mikro edo makrosoziologikoa pribilegiatu edo bata bestearen ondoan ipini ordez, bi mailen arteko harremana pentsatzen ahaleginduko gara, azterketa plano "mesosozilogikoa"-n (Chazel 1992: 308) ezarriz.

Analisia, bestalde, funtsean ulergarria izanen da, aktoreen diskurtsoari, oharmenari eta sinesmenari lehentasuna emanen zaiola esan nahi baita, jakinik horien arabera sartzen direla aktoreak mobilizazioan. Alabaina, desmarta esplikatibo eta beraz determinanteen lekuak ere integratuak izanen dira.

Horrez gain, perspektiba honek errealitate sozialaren errepresentazio dinamiko batean ekiten du, hots, prozesuetan; horren ondorioa, «ardatz longitudinal baten segidan lan egitea da» (Fillieule 1995: 35), eta ez soilik zeharkako edota monografiaren bidez.



Eta azkenik, aipa dezagun mobilizazioaren soziologia hau funtsezko hiru galderei erantzuten saiatzen dela: lehenik, nola eta zer baldintzatan sor daiteke mugimendu sozial edo protestatzaile bat? Ondoren, nola pasatzen gara mobilizazio indibidualetik mobilizazio kolektibora? Eta azkenik, zein harreman dauka mugimendu sozial batek bere ingurumenarekin?

## **1. Mugimendu sozialen agerpenaren modalitate eta baldintzak**

### *1.1. Baldintza estruktural zein koiunturalak eta kolektibitate mobilizagarriak*

#### 1.1.1. Faktore edota baldintza estruktural zein koiunturalak

Hainbat soziologok nabarmendu duen bezala, horien artean Oberschall eta Touraine aipa daitezkeelarik, mugimendu sozial bat agertu edo sortu ahal izateko baldintza estrukturalak kontuan hartzea beharrezkoa da. Fillieule-k, "gainegitura politiko"<sup>9</sup> kontzeptuaren bidez, maila makrosoziologikoan kokatzen diren baldintzen artean funtsezko hiru bereizten ditu.

Lehenik, kontsidera genezake, pertsonen nahien gain, gizartea hunkitzen duten aldaketa eta beraz prozesu politiko, ekonomiko, kultural zein sozialen arabera, mugimendu sozialek eduki ditzaketan baliabide erabilgarriak aldatu egiten direla, edo, bestela esanda, aipatutako aldaketek «mobilizaziorako jokoan dauden»<sup>10</sup> berriak sor

ditzaketela» (Fillieule 1992). Izan ere, Touraine-k nabarmendu duen moduan, 60 eta 70.eko hamarkadetan eman ziren aldaketa kulturelek<sup>11</sup>, "iraultza kulturala"-z ez hitz egiteagatik, mugimendu sozial berrien agerpena bultzatu zuten, hala nola, mugimendu feminista, ekologista, bakezalea edota nazionalisten sorrerekin.<sup>12</sup> Baina, aldaketa estruktural horiek mugimendu sozial eta oro har mugimendu protestatzaile baten agerpenarako nahikoak ez badira ere, ezinbestekoak dira, hots, beharrezkoak baina ez nahikoak; baldintza nozioa horretan da egokia, Touraine-k kontrakoa uste badu ere.

Bestalde, modu iraunkorragoan, estatu- edo nazio-mailako kultura politikoaren edukia funtsezkoa izan daiteke mugimendu sozial baten agertzeko orduan. Kultura politiko kontzeptu horren pean, adibidez, nazio baten tradizio demokratikoaren indarra eta iraunkortasuna koka genitzake. Gisa berean «nazio batean dagoen pluralismo politikoaren graduak» (Fillieule 1992: 51), hau da, sentsibilitate edota korrante politiko guztien existentzia eta onespen ezak edo mugatuak, mobilizazioaren sorrera zein ekintza-moduak determina ditzake, jakinik, perspektiba konparatzaile baten bidez jorra daitezkeela soilik. Alde horretatik, Europa ekialdean duela gutxi izandako mugimendu sozialen azterketa aberasgarria izan daiteke.

Azkenik, baldintza estrukturaleri dagokienez, estatuaren egitura eta oro

9. *Politiko* adjektiboa murrizgarria bada ere.

10. *Enjeux de mobilisation*, frantsesez.

11. Baloreen mailan batik bat.

12. Halaber, Jekins eta Perrow-ek azaltzen duten bezala, 60.eko hamarkadan Estatu Batuetan izandako nekazal langileen mugimenduaren agerpena eta arrakasta, «protestatzaileen presiotik at, agerturiko joera ekonomiko eta berlerrokadura politikoak» sorturiko "funtsezko" aldaketa-serie batean sustraitzen da.

har sistema politikoaren berezitasun edo ezaugarrien garrantzia nabarmentzekoa da. Izan ere, Tocqueville-k jada, *De la Démocratie en Amérique* liburuan, estatu-mota eta mobilizazio-moten arteko harremana erakutsi zuen. Ildo horri segituz, Kitschelt, estatuaren soziologia historikoaz baliatuz, «nazioaren egitura politiko motak, eta bere dimentsio instituzionalak batik bat, mobilizazio sozial baten agerpena lagundu, edo alderantziz, zail deza-keela» (Kitschelt 1986), erakusten saiatuko da.

Zehatzago izanez, estatuaren "irekidura" edo "itxitura" graduak, hau da, zuzenduak zaizkion eskaeren araberako jarrera integratzaile, edo maiz erre- presioarekin adierazten den jarrera itxiaren graduak, mugimendu sozialen agerpen eta eboluzioak norabidetu ditzake, «estatu geroz eta itxiagoa izan eta osatzeke dauden mugimendu sozialen partaideen kopurua geroz eta murriztagoa izanen dela» (Birnbaum 1992: 169) kontsideratzen baita.

Baldintza edota faktore koiunturale- tara etorriaz, "azeleratzaileak" ere deituak, esan dezagun, prozesu edo aldaketa estruktural zein krisi edo gertakari batzuek mobilizatzeko "jokoan dauden" berriak sor ditzaketela. Walsh-ek (1989) ongi erakutsi duen erara, Three Mile Island-eko istripu nuklearrak Estatu Batuetako protesta antinuklearrean eragina eduki zuen.

Baina, baldintza edo faktore estruktural zein koiuntural horiek injustizi egoera bat sortzen badute ere, mobilizatzeko jokoan dauden berriak sortuaz, ez da horretarako edozein kolektibitate mobilizatu.

### 1.1.2. Kolektibitate mobilizagarriak eta hauen determinanteak

Izan ere, Oberschall-ek azpimarratzen zuen bezala, injustizi edo ondoez egoera bat beharrezkoa bada ez da mobilizatzeko nahikoa eta batik bat ez da edozein kolektibitate mobilizagarri mobilizazio edo ekintza-fasera pasatzen.

Zehaztu dezagun, kolektibitate mobilizagarri kontzeptuak zera suposatzen duela, hots, mugimendu soziale- tan parte hartzen duten pertsonak kolektibitate eta maiz talde batzuen partaide direla eta ez datozela erabat atomizatua dagoen indibiduo-masa batetik.

Hori dela eta, kolektibitate mobilizagarrien irizpideak edota determinateak aukeratzerakoan<sup>13</sup>, zera esan genezake, bakoitza berriz hartuz, hau da, mobilizazio batean parte hartzeak eta lehenago egoera objektibo bat injustuztat jotzeak, estatutu sozial bat eta beraz kapital kultural, ekonomiko eta politiko (botere) berezi bat suposatzen duela. Hain zuzen ere, badirudi, gaur egungo mugimenduen partaideak batez ere, instrukzio eta oro har goi-mailako kapital kultureko, kapital ekonomiko ahul edo ertaineko eta botere politiko gabekoak direla<sup>14</sup>.

Izan ere, Dubet-ek azpimarratu duen moduan, 60 eta 70.eko hamarkadetan izan ziren mugimendu soziale- tan parte hartu zuten aktoreak, asko, botere politiko gabeko eta "anitz eskolarizatu- tutako erdi-klaseetatik" zetozen. Hala- ber (Touraine-Dubet-Wieviorka 1984), *Le mouvement ouvrier*-en, Touraine-k,

13. Nabarmen dezagun, aukeratutako determinante horiei beste hainbait gehi dakizkiela.

14. Historiari begiraturik, makina bat adibide dago. Horien artean, ikasleen protagonismo politikoa aipa daiteke, Frantziako 1968ko maiatzeko mugimenduarekin, edo Txinan Tien Han Men-eko erreboltarekin.

langile-mugimenduan eta zehatzago sindikatueta aktiboenak ziren akto-reak, artesau eta langile kalifikatu eta irakurrienen artean zeudela erakusten du.

Bestalde, kultura politikoen garrantzia ere aipatzekoa da:

Kultura politikoa jarrera-, sinesmen-eta sentimendu-multzo bat da, ordena eta zentzu bat ematen diena prozesu politikoei, eta azpiarau eta konbikzioak emanaz sistema politikoa araberaz jarrera komandatzen duena (Schemeil 1992).

Izan ere, azpimarratzekoa da, Hego zein Ipar Euskal Herrian izandako mugimendu antimilitaristen partaide gehientsuenak ezker abertzale alternatiboaren kultura politikokoak zirela, jakinik, ezker abertzale alternatiboak antisistema, antiautoritarismo, feminista edota bizimodu desberdin eta askatuaren balorez osaturik dagoela.

Azkenik, Dubet-ek nabarmendu duenez, minoritate edo gutxiengoak izatea, mobilizatzeko orduan funtsezko determinantea izan daiteke, Estatu Batuetan zein Europan 70.eko hamarkadako eta baita gaur egungo mugimenduek ere isladatzen duten bezala. Izan ere, kolektibitate mobilizagarri horien "abantaila", kasu anitzetan behintzat, identitate kolektibo jada osatuan datza<sup>15</sup>. Baina, mugimendu identitarioetan, maiz minoritarioak direnak, identitate kolektiboa jada eraikia bada, gerta liteke aktoreek edo mugimenduek identitate kolektiboaren aldaketa egin izan beharra, jokoan dauden berrietara egokitzeke.

Nolanahi ere, determinante bat nahikoa bada edo juxtaposatzen badira

ere, maiz fusiona daitezke, bakoitzak autonomia eduki arren, hala nola, klase ertain anitz eskolarizatutakoa, kultura politiko ezkertiarrekoa eta minoritate nazional baten partaidea izango liratekeen aktore indibidual zein kolektiboak aurki gero.

Baina, kolektibitate mobilizagarrien determinanteak izendatu arren, maila makrosoziologikoan gaude, eta kolektibitate mobilizagarri horien barne dauden aktoreek injustizi egoera objektibo bat horrela hautematen edo interpretatzen eta problematizatzen duten ulertu beharra dago.

## *1.2. Oharmenetik problematizaziora eta hausnarketa indibiduala*

### 1.2.1. Oharmenetik problematizaziora

Maila estruktural eta psikosoziologiko edota makro eta mikrosoziologien arteko harremana eta lotura egiteke dago oraindik. Baliabideen mobilizazioaren teoria ez da oharmenez axolatzen, bere razionalitate partekatuaren eremuan ezarritik, «agente guztiek egoeraren oharmen berdina dutela, akzioaren abantaila eta kostuaren ebaluazio bera egiten dituztela postulatzen baitu» (Fillieule 1992: 37). Hala ere, mugimendu sozial berrien teoriak tentsioen jatorri estrukturaletara mugatzen dira, aktoreen oharmena alde batera utziz.

Alabaina, Gurr eta Davies-ek erakutsi digute, tentsio- edo ongiez-egoera objektibo bati aktoreen oharmena gehitu behar zaiola, izan ere, «akzio kolektibo bat sortu ahal izateko, aktore mobilizatuak beren egoera soziala ezjustu eta aldagarri bezala analizatu behar dute» (Piven-Cloward 1979). Ildo berari segituz, McAdam-ek,

15. Honez gain, identitatea amaiera bat dela berez eta ez soilik tresna edo medio bat.

kontzeptu berri bat sortuko du, hots, “liberazio kognitiboa” bere prozesu politikoaren eredian inskribatuz eta mugimendu sozialen sortzerako hirugarren baldintza bezala kontsideratzen duena.

Horrez gain, beti tentsio-egoera eta kexuen formulazioen arteko harremanari dagokionean, Gamson, Goffman-en “koadro interpretatiboen analisi” kontzeptuaz baliatuz, aktore batzuen mobilizatzeko joera eta beste batzuen eza azaltzen saiatuko da. Hain zuzen ere, bere iritziz (Gamson 1975), desberdintasun hori «ordena sozialaren egituraketa eta gure inkontziente politikoaren egituratze desberdinaren araberakoa da».

Koadro interpretatiboen artean Gamson-ek “injustizi koadroa” aukeratzeko funtsean, ondokoa kontsideratuz:

Autoritateen aurkako errebolta, autoritate-sistemaren ekintza ezjustuzat jotzen duen injustizi sentimenduaren menpe dago, eta une berean, sistemak onartzen ez dituen akzio-moduen erabilpena justifikatzen du.

Hala ere, egoera bat injustuzat jotzea beharrezkoa eta lehen fasea bada, ez da berez nahikoa, Smelser-ek (1962) izkiriatu bezala:

Ekintza kolektibo bat sortu eta garatu ahal izateko, tentsio estrukturalak behar dira, eta era berean, tentsio horiei horrelako zentzua ematea, erantzuleak izendatzea eta gatazkaren konponbideak proposatzea ere bai.

Alde horretatik, klasikoak beren ondorengoak baino askoz urrunago joan dira.

Bigarren fase edota jarrera hau, “problematizazio” kontzeptuaren bidez izenda genezake, izan ere, mugimendu sozialei, behin sortu eta, egoera injustuzat jotzea, erantzuleen eta ondoren aurkarien izendatzea, ekintza kolektiboarekin egoera alda daitekeela uste izatea eta gizarte-proiektu baten proposatzea, ezinbestekoa zaie.

Hainbat soziologok, Fillieule barne, oharmenaren eta problematizazioaren faseak edota jarrerak nahasten badituzte ere, bereizteak mobilizazioaren soziologia aberastu eta batik bat zehaztu zein konplexutzeko abantaila dauka.

Baina, aktore batek tentsio estruktural bat injustu bezala interpretatzen badu eta problematizatzen badu, motibatua badago alegia, konpromezura pasako den edo ez jakiteko erreflexio edo hausnarketa indibidual bat eramanen du.

#### 1.2.1. Hausnarketa indibiduala eta elementu psikosozilogikoen garrantzia

Aktore batek mobilizazio eta beraz mugimendu sozial batean parte hartu baino lehen, hausnarketa indibidual bat eramanen du, konpromezuaren abantaila eta kostuak baloratuz. Izan ere, Olson-ek nabarmendu duen bezala, mobilizazio batean parte hartzeak desabantaila edo kostu batzuk suposatzen ditu, horien artean, langileen greba bat adibidetzat hartuz gero denbora (bilkurak, afitxen edo kartelen kolatzea...), dirutza (kotizazio sindikalak), lanpostua galtzea, promozio eza...

Beraz, logika edo razionalitate instrumental batez funtzionatuz,

«aktoreak, ekintzan parte hartzearen kostuak abantailak baino handiagoak direla jukatzen badu, (...) ez dauka logikaz parte hartzeko inongo arrazoirik» (Mann 1991: 62). Are gehiago, mobilizazioak onura kolektiboak ekoizten baditu, hau da, talde baten partaide guztiei probetxu bera ematen dieten onurak badira, mobilizazioan parte har dezaten nahiz ez. Kasu honetan, *free riding* jarrera suertazeko arrisku edo aukera handiagoa dago.

Alabaina, Dubet-ek azpimarratu duen moduan, aktoreak logika razional edo estrategiko baten arabera badabilta ere, integrazio edo identitate eta subjektibazioaren ekintza logikoak gehitu behar zaizkio. Beste era batera esanda, ekintza indibiduala logika desberdinez osaturik dago: baloreena, interesena eta errol sozialena. Horrez gain, logika horien artean tirabira eta zatiketak daude, bakoitza bere autonomiarekin, aktorea beti batasun baten bilatzera bortxatuz. Lan hori da prezeski, Dubet-ek aktorearen “esperientzia” deitzen duena.

Hori dela eta, bi ohar egin genitzake: bata, razionalitatea, logika bat bezala agertzen dela beste hainbaten artean, bere garrantzia edo eragina murriztuz mobilizazioan parte hartzeko erabakian; eta bestea, interes logikoa, balore eta identitate sozialaren logikek muga dezaketela, esperientzia sozial deitzen den batasun-lan horretan.

Bestalde, Fillieule-ek identitate kolektiboaren garrantzia nabarmendu du, jakinik, «identitate kolektiboaz hitz egin daitekeela, indibiduo bakoitzak bilakatuko denaren zentzua, ekintzan parte hartzen duten beste kideekin konpartitzen duelarik» (Fillieule 1992: 39). Adibide gisa, esan genezake, lan-

gabetuek maiz beren identitate pertsonala lotsagarri bezala ikusten dutela, identifikazio kolektibo eta langabeziaren errepresentazio politikoak zailduz. Ildo horri segituz, identitate kolektibo bat are eta garrantzitsuagoa da, ez da baliabide instrumental bat soilik, baina bai amaiera bat berez, bukaera kultural bat ere.

Azkenik, Duyvendak-ek erakutsi duenez, mugimendu sozial batean parte hartzea elementu psikosoziologikoen ondorioa izan daiteke, autoestimaren berreskuratzea alegia. Izan ere, ongi kolektiboaren ekoiztean eta oro har proiektu kolektibo batean parte hartzeak bere burua kolektibitatearendako baliagarri bezala ikustera lagun diezaioke indibiduoari, modu horretan, bere autoestima berreskuratzen lagunduz.

Baina, oro har, ikusi dugunez, aktorea, sare sozialetan sarturik badago, talde-identitate bat badauka eta sozialki eraikirik dauden kalkuluak egiten baditu, hala ere, mobilizazio indibidualetik mobilizazio kolektibora nola pasatzen garen edota nahi indibidualak nola agregatzen diren galderei erantzunik ez diegu oraino ekarri.

## **2. Mobilizazio indibidualetik mobilizazio kolektibora**

Berriz ere, mikro eta makrosoziologi mailen arteko lotura egin beharra dago, motibazio eta konpromezu indibidualetik mobilizazio kolektibora nola pasatzen garen ulertzen saiatuz. Horretarako antolaketa-prozesua, hau da, harreman-sareen garrantzia zein erakundearen eraikuntzaren beharra, eta baita erakunde eta oro har mugimenduen eginbehar funtzionalak ere, kontutan hartzea funtsezkoa da.

## 2.1. Antolaketa-prozesua

### 2.1.1. Harreman-sareen garrantzitik erakundeen eraikuntzara

Erantzun-hasiera bezala, Oberschall-ek azpimarraturiko kolektibitate mobilizagarrien barne-harremanen izaera aipa genezake. Izan ere, kolektibitateak egitura komunitarioetan sustraituak izan daitezke edo, alderantziz, talde sekundariozko sare trinko batez hornituak, izan profesional, erlijioso, ekonomiko nahiz interes bereziek gidaturikoak. Bi kasu hauetan, bere aburuz, oposizioa tinkoa eta luzarokoa izateko posibilitatea legoke, eta are gehiago, kolektibitatea "segmentaturik" badago. Oro har, Oberschall-en teoriaren interesa bi puntutan datza: alde batetik, harreman-sareei emandako tokian, eta bestetik, ikusi baitu talde sekundarioen garrantzia, gizarte garaikideetan bereziki, mobilizazio bat osatzerakoan.

Marx-ek jada, *Le 18 Brumaire de Louis Bonaparte* liburuan, baserritar partzelarioen kasua aztertuz, mobilizazio bat izan ahal izateko edota *classe en soi-tik classe pour soi-ra* pasa ahal izateko, hurbiltasun geografiko edo espazialean nahiz harreman-sareen beharrea ekiten zuen. Langile-mugimenduaren sorrera paradigmaticoa da alde horretatik, iraultza industrialaren ondorioz langileak etekinguneetan kontzentratuak izanak, harreman-sareak sortu baitzituen, ondoren mobilizatzen lagunduz.

Halaber, hainbat soziologok, Ginsberg barne, talde sekundario, edo Tocqueville-ek deituriko "bitarteko gorputz"-en garrantzia erakutsi dute

mobilizatzeko orduan, jakinik, taldeak, indibiduo-multzoak direla, beren artean harreman eta komunikazio erregularrak dauzkatenak, egitura identifikagarri batez identifikatuz. Hain zuzen ere, talde horiek, aktoreen arteko harreman eta komunikazio erregularrak permitituz, kidesan, kooperazio eta koordinazioa laguntzen dituzte.

Hortik goiti, mobilizazio batzuk maiz bat-batekoak izan daitezke, edo gutxi antolatutakoak, epe motzekoak badira ere, sare-harremanek eta beraz talde sekundarioek ez baitiete konpromezu indibidual eta oro har joera desberdinei agregatu eta koordinatzeko aukerarik ematen. Izan ere, Agulhon-en lanek erakutsi digutenez, 1851ko abenduan Louis Bonaparte-ren estatu-kolpearen ostean izandako errepublikaren erresistentziaren porrotaren zergaitia, «estatu-kolpeari erreakzionatu dioten mugimenduen aldiberekotasun eta koordinazio ezean legoke» (Agulhon 1973).

Badirudi, hain zuzen ere, antolatzea, eta beraz, erakunde batez hornitzea, ekintza kolektiboa koordinatzeko eta ondoren ekintza eragile eta emankor baten lortzeko baldintza dela, langile-mugimendua adibide dela, epe motzean eta nazio mailan mobilizatzeko ahalmena baitzeukan, bere antolaketa eta erakunde berriari esker<sup>16</sup>. Era berean, Gamson-ek (1975), Estatu Batuetako 53 erakunde aztertuz 1800 eta 1945 tartean ondokoa nabarmendu du:

Anitz zentralizatutako eta burokratizatutako antolaketa-egitura duten taldeek gutxiago antolatutako diren erakundeek baino posibilitate gehiago dute beren eskakizunak onartuak izateko.

16. Hala ere, azpimarra dezagun neurri tipiko kolektibitate edota taldeentzako, kontzertazioaren galdera eta horrenbestez antolaketa-erakundeak ez direla hain funtsezkoak, barne-komunikazioko sare trinkoak baitaizkate.

Baina, antolaketa eta beraz erakunde batez hornitzea ezinbestekoa bada ekintza eragile bati ekiteko, erakundearen eta oro har mugimendu sozialaren ezaugarriak funtsezkoak dira.

### 2.1.2. Erakundearen eta oro har mugimendu sozialen ezaugarriak

Izan ere, erakundearen funtzioa eta ondorioz ezaugarriak garrantzitsuak izanik, Fillieule-ren (1995) perspektiba geureganatuz, erakundea, «konfigurazio aldakorreko aliantza eta gatazka-sistema» bezala definienezake.

Aliantza-sistemara etorriaz, lehen azpimarratu dugun moduan, mugimendu bat garatu eta aliantza-sistema bat osatu baino lehen, gizartean sektore sozial desberdinak dira, iritzi- zein oposizio-sistema batzuen inguruan federatuak, harreman-sareak talde primario zein sekundarioz osaturik baitaude.

Hori dela eta, erakundearen barnean aliantza-sistema batzuk daude, taldeetan jada osaturik dauden harreman-sare eta maiz iritzi-sistemak izan edo ez. Dena den, erakundeak ez dira homogenoak, indibiduo, talde, korrante edo logika-ekinza desberdinez osatuak egonik, kontzertatu, kooperatu eta koordinatu ahal izateko aliantzak sortzea beharrezkoa baitaie.

Halaber, erakunde guztiak, konflikto- edo gatazka-sistema bezala kontsidera daitezke, indibiduo eta korrante desberdinek ekintza logiko berezi eta autonomoen arabera funtzionatzen baitute. Eta are gehiago gaur egun, Dubet-i sinesten badiogu, non erakunde eta oro har mugimendu sozialak ez diren logika-ekinza desberdinen integrazteraz iristen, Frantziako mugimen-

du feminista zein ekologista adibide izanik.

Baina, barne-zatiketa logika-ekinzen oposaketaren ondorioa bada, ez da arrazoi bakarra, izan ere, indibiduen arteko harremanetan gatazkak daude, maiz dimentsio psikosoziologikoen inguruan, hots, prestigio- edo jeloskortasun-kontuak eta abar. Nabarmentzekoa da, horrelako zatiketak kasu gehienetan neurri eta barne-egituraketa txikiko erakunde edota mugimenduetan gertatzen direla.

Horrez gain, ohararazi dezagun, Fillieule-ek (1992: 61-62) egin duen moduan, «gatazka eta aliantza-sistema elkarrekintza iraunkorrean daudela, bere balore, helburu eta taktikan eragina ukanez». Eta jarraikiz, «aliantza eta gatazka-sistemen garapenean, interdependentzia estu hori ez ahanzte garrantzitsua dela». Horiek, alegia, gatazka eta aliantza-sistemek eta beren arteko harremanek, erakundea, tenporalitatez osatua izateaz gain, «konfigurazio aldakor» bat bezala agertarazten dute.

Bestalde, mugimendu sozialak, kasu gehientsuenetan behintzat, ez dira erakunde batez osatuak, anitzez baizik, maiz, Dubet-ek nabarmendu duen bezala, zentralitatearik ukan gabe.

Hain zuzen ere, Gerlach eta Hine- ren lan fundatzaileek «mugimendu sozialen egitura multipolar»-ean ihardun zutenetik, hainbat soziologok, mugimendu bateko talde desberdinen arteko harremanei buruz lan egin dute. Melucci-k adibidez, erakundeak, «mugimendu-sareak», «agregazio-espazioak» edo «mugimendu-aroak» bezala definitu ditu. Hala ere, Melucci-ren (1983) definizioa mugatua da, mugimen-

mendu klasiko eta mugimendu sozial berrien arteko desjarraitasuna jartzen baitu.

Alde horretatik, Curtis eta Zuecher-ek eraikitako “eremu multiorganizazional” kontzeptuak egokiagoa dirudi. Autore hauen iritziz, mugimendu sozialen erakunde guztiak eremu multiorganizazional batean inskribatzen baitira, azken hau, beste erakundeekin harremanetan sartzeko aukera-kopuru moduan definitua delarik,<sup>17</sup> ondoren, eremu multiorganizazionala natura bi-koitzekoa dela azpimarratuz, aliantza-sistema eta gatazka sistema batekin.

Baina, mugimendu batek bizi edota garatu nahi badu, erakundeen barnean zein erakundeen arteko harremanetan gatazka-sistema dela eta, bai eta efikaza izateko garatu beharra ere, eginbehar funtzional batzuk betetzea ezinbestekoa zaio, hala barne-batasuna mantentzea nola konpromezu individual berriak sortzea.

## *2.2. Erakunde eta oro har mugimenduen eginbehar funtzionalak*

### *2.2.1. “Aktorearen lana” eta identitate kolektiboaren eraikuntza eta aldaketa*

Barne-batasunera etorriaz, esan genezake, barne gatazka eta zatiketak direla eta, mugimendu sozialak beren gainean lan baten egitera bortxatuak direla batasun minimo bat mantentzeko. Lan hori da prezeski, Dubet-ek “aktorearen lana” deitzen duena. Hain zuzen ere, bere aburuz, mugimendu sozialak ekintzaren dimentsio guztiak artikulatzeko eta hierarkizatzeke karakterizatzen dira. Baina, nahi hori

ez dago aktorearen lanetik kanpo, hau da, ekintza autonomo eta integratu baten eraikitzeke militanteen behar eta desiratik kanpo.

Hori dela eta, mugimendu sozialak, zatituak izan nahiz ez, horrelakoak dira esanahi desberdinak lotzeko nahi beti berritua baitaukate, alde horretatik langile-mugimenduari parekatuz.

Oro har, «mugimendu sozialek indarra eta iraunkortasuna daukate, “pertsonaia historiko” bilakatzen dira, esperientzia sozial integratu batzuetan oinarritzen badira» (Dubet 1994: 221). Beste modu batera esanda, mugimendu sozialak existitu eta garatu egiten dira, logika-ekintza eta oro har indibiduo eta korronte desberdinak integratzera iristen badira.

Laburbilduz, esan daiteke, mugimendu sozialek barne-gatazka eta zatiketak dituztela, izan indibiduo nahiz korronte mailan, eta horien artean konposatu behar dutela batasun delako bat mantendu edo eraikitzeke. Horren ondorioa, barnenegoiazio, aukera, artikulazio edo egokitze-ahalegina da, hots, “aktorearen lana” .

Baina, barne-dinamikari jende berria erakartzeko dinamikak gehitu behar zaizkio, eta horien artean identitate kolektiboaren eraikuntza edo aldaketa beharra. Izan ere,

sustengoak lortzeko, mugimendu bat bere ikusmoldea gehientsuenari inposatzera iritsi behar du. Horretarako, lehenik, indibiduoek haiengan duten oharrena aldatu behar dute, hots, identitate kolektibo baten sorrera bultzatu behar dute (Fillieule 1992: 39).

---

17. Nabarmendu dezagun, eremu “multiorganizazional” kontzeptua zentzu murriztu batean erabiliko dugula, mugimendu sozial bateko erakundeetara mugatuz.



Adibide bezala, Polac-ek erakutsi du, finantza-agenteen mobilizazioa, sindikatuek administrazioko personalaren interes eta ezaugarri komunak nabarmendu dituztelako izan dela posible soilik, haien talde "pribilegiatu" eta "gutxi maitatu"-aren definizio positibo bat emanez.

Bestalde, mugimendu sozial berrien teoriak erakutsi digun moduan, mugimendu anitzek beren egitarauetan eskakizun kulturaleri exigentzia politiko eta ekonomikoak gehitzen baidizkiete identitate kolektiboaren tokia erreibindikazio-moten arabera aldatzen da. Honela, Gamson-ek agertu du, Estatu Batuetako ACT UP mugimendu homosexualak erreibindikazio identitario eta materialak nahasten zituela.

Azkenik, azpimarra dezagun, identitate kolektiboak ez direla behin betirako emanak, baizik eta, ekintzaren une berean formakuntza eta berformakuntza-prozesu etengabearen inskribatzen direla. Hassenteufel-ek ongi erakusten du, manifestazioetan parte hartzeak Frantziako erizainen mugimendua nola lagundu duen kolektibo bat izatearen kontzientzia hartzen, "elkartasunerako intzitzazioak" sortuz batik bat. Halaber, aktibismoari buruzko McAdam-en azken lanek, ekintzan osatutako identitate berriek urte anitz irauten dutela edo iraun dezaketela nabarmentzen dute.

Baldin eta identitate kolektiboaren tokia hain zentrala bada, erakundearen eta oro har mugimenduen manipulazio sinboliko zein pertuasio lanez interesatzera bultzatuak gara.

### 2.2.2. Koadro interpretatiboaren aldaketa eta ongi selektiboaren etekina

Pertuasio-ahaleginetan, mugimenduak errealitatearen desfrazketa-lan

bat egitera eramanak dira, aktore indibidual bakoitzak problematizazio-fasean egiten duen bezala. Analitikoki elementu desberdinetan deskonposa daiteke: «arazoa identifikatu, termino politikoetan kalifikatu, erantzuleak izendatu, irtenbideak proposatu eta irtenbidea ekintza kolektiboaren bidez lor daitekeela konbenzitu». Elementu horiek osatzen dute, Klansderman-ek, "kontsensuaren mobilizazioa" deitzen duena, edota, "eskema interpretatiboaren aldaketa" (Snow 1986).

Horrez gain, mugimendu anitzek azterketa enpiriko batetik abiatuz, Snow-ek eskema interpretatiboaren inposaketarako lau prozesu-tipo bereiz daitezkeela kontsideratzen du. Lehenik, mugimendu batek bereizita dauden arazo estrukturalak bere kargu har ditzake ideologikoki lotuz, horrela, eskema interpretatibo bat eta organizazio oinarri bat emanez jada existitzen diren erreibindikazioen espresatzeko.

Ondoren, «jadanik dauden eskema interpretatiboak argitu eta gara ditzake, baloreetan, arazo baten kalifikazio politikoan edo salatu behar diren erantzukizunetan, ekinez» (Snow 1986, Fillieule 1992). Izan ere, Ferree eta Miller-ek azpimarratu duten bezala, "atribuzio sozial"-en sistema dominatzailea aldatzea, edozein mobilizatorako eta lehenago indibiduen konpromezurako baldintza da.

Bestalde, beti Snow-en aburuz, erakunde bat bere sostenguak hedatzen saiatzen ahal da bere hasierako erreibindikazioei beste gai batzuk erantsiz, orduan, ideologikoki bere benetako arrangura gaiei lotzen saiatzen dena (*frame extension*). Mugimendu antinuklearrek, adibidez, «publikoaren arretra gastu nuklearrek eragiten

zituzten sakrifizioen gainean ekarriz, hezkuntza zein politika sozialaren arloan, partaide berriak erakartzea espero zuten» (Fillieule 1992: 44).

Azkenik, mugimendu batek defenditzen dituen balore eta helburuak gizar-teak defenditzen dituenetik desberdinak badira, mugimendua, balore berrien sortzera eta garatzera bortxatua da, hala bizitza sozialaren maila partikularrean, nola orokorki, mugimendua- ren baloreak ideologia dominatzailearen erabat kontrakoak direlarik (*frame transformation*).

Baina, kide berriak erakartzeko mugimenduek azken modu bat daukate, hau da, Olson-ek erakutsi duen gisara, “onura selektiboak” etekinez. Hain zuzen ere, onura selektibo horiek mugimendu batean edo mobilizazioan parte hartzearekin lor daitezke soilik, erakundearen berezko fondoetatik etor daitezela, erantzukizun edo postu iraunkorrak emanaz, edo, mobilizazio-aren arrakastak emaniko baliabideetatik, manu edo kargu politikoekin batez ere.

Horretarako, egitura profesionalizatu- tua duten erakundeak eta militanteen borondatean oinarritzen direnak berezi behar dira edota, Weber-en formula (1917) geureganatuz, “politikaz bizi direnak” eta “politikarako bizi direnak”. Izan ere, Weber-ek dioenez, aktibitate politiko iraunkorrak ordain bat suposatzen du, bestela dirudunek soilik egin baitezakete politika. Beraz, «gizon politikoak errenta bat jasoko du, sol- data finko baten bidez edo naturaz».

Hori dela eta, erakunde politikoak buruzagientzako abantailagarriak izango lirake, beren aktibitate politikoaren ordaina jasoko bailukete, baina ez horientzat soilik, militanteek ere beren parte hartzearen truke aban-

taila pertsonal batzuk lor ditzaketelako. Hala ere, Michels-en aburuz, erakun- dea handitu hala, botere eta beraz postu gehienak buruzagien esku izan- nen dira, erakundeak bere hasierako helburua, hots, helburu ideologikoen izenean boterera iristea, ahantziz eta postuak lortzeko makina bilakatu.

Azkenik, nabarmendu dezagun, erakunde batek eman ditzakeen onura selektiboak botere eta postu iraunkor- ren gain, sinbolikoak izan daitezkeela, batik bat, boluntarismoan oinarritzen diren erakunde txikientzat.

Oro har, ikusi ditugu zein ziren mobilizazio indibidualetik mobilizazio kolektibora pasatzeko baldintzak eta erakundeen eginbehar funtzionalak, baina mugimenduak bere inguramena- rekin dituen harremanak oraino jorra- tzeke daude.

### **3. Mugimenduak eta beren inguru- mena edo “aukera politiko- en egitura”**

Izan ere, mugimendurik ez da ager- tzen eta garatzen aukera politiko mini- mo bat ez badauka. Hori dela eta, mugimendu sozialak inskribatzen diren testuinguruak eragin determinantea du, horretan funtsezkoa delarik inguru- mena osatzen duten taldeen azterketa.

Halaber, ingurumenean jokoan dagoena are eta zentralagoa da, jakinik, aktibitate protestatzailearen egitura estrukturgile bat dela, eta alderantziz, talde horien aktibitatea aldatzen duela.

#### *3.1. Ingurumenaren osagaiak*

##### **3.1.1. Sistema politiko-administratiboa eta talde instituzionalizatuak**

Mugimenduen ingurumen horretan

eta aukera politikoen egitura zehazteagatik, esan dezagun, gainegitura politikoa<sup>18</sup> berraiatu gabe, sistema politiko-administratiboa zentrala dela, berak baitauzka aukera politikoko egiturarekin harreman konplexuak edota berari baitoazkio eskaera gehienak, osotasuna ez bada ere, nahiz eskubide zein abantailak eskatzerakoan edo erabakiei oposatzerakoan ere. Oro har, «sistema politiko-administratiboak arazoak kontutan hartzen dituen arabera, erreibindikazioen formulazioa determinatzen du» (Fillieule 1992: 52).

Bestalde, arazo baten kontu hartze instituzionalak, jokoan daudenen definizioengan eragina eduki dezake. Hain zuzen ere, Bourneau eta Fillieule-ek erakutsi dute, langabetuen mugimendua aztertzerakoan, "langabetu" kategoria administratiboak, pertsona kolektiboaren definizio kolektibo bat inposatzen duela, talde potentzialaren batasuna hautsiz.

Zuzenkiago, sistema politiko-administratiboak mobilizazioaren dinamikan funtsezko tokia dauka, aukera politikoen sortzaile baita, mugimenduen konposaketa zein zabaltasunean eragina edukiz. Izan ere, erreibindikazio baten onarpenak, erakundeen desagerpen edo birmoldaketa eragin dezake, 1981 ondoren Frantziako mugimendu homosexualaren kasuan bezala. Alderantziz, lege batzuen promulgazioak edo erabaki hartze ihardetsiak, mobilizazio bat bultzatu edo berdinamiza ditzakete.

Azkenik, sistema politiko-administratiboak, errekonozimendu-moduen manupea duelako, mobilizazio baten arrakasta edo porrotean eragin deza-

ke, errekonozimendu horrek funtsezko errekurtsio bat eratzen baitu, alde materialetik (informazio, subentzio...) eta sinbolikotik (parte hartzearen intzitzazio gisa, garaipena dela eta).

Baina sistema politiko-administratiboa ingurumeneko osagai funtsezkoa bada, ez da bakarra, eta talde politiko zein sozial instituzionalizatuen garrantzia aipatzekoa da, aktore horien sostengu edo etsaigoak modu erabakigarrian eragin baitezake mugimendu baten arrakasta edo porrotean. Gamson-ek, Amerikako erakundeak aztertuz, ideia hori konfirmatzen du. Izan ere, kanpoko sostengua ukan duten taldeetariko % 57ak bere helburuak lortu ditu, aliaturik gabeko mugimenduek ordea % 46a soilik.

Zehatzago izanez, alderdi politikoak mobilizazioen dinamikan zentral bezala agertzen dira, mobilizaziorako errekurtsio anitz baitauzkate, kolektibitate lokaletako medio materialekin, baita, errepresentazio parlamentario bat daukatelarik ere, sistema politiko-administratiboa integratuz. Bourneau eta Martin-ek ongi erakutsi dute, nola APEIS-ek, Frantziako Alderdi Komunistaren sostengua ukan zuen.

Halaber, interes-talde, interes profesional eta batez ere ekonomikoek, toki garrantzitsua daukate; hain zuzen ere, talde industrial handiek eremu politikoko beste aktoreek baino baliabide ekonomiko handiagoak dauzkate, mugimendu edo kontramugimenduak lagunduaz, informazio eta oro har funtsezko kanpaina bat eramanez ahal izateko. Orokorki, mugimendu sozial bat garatu ahal izana, merkatu-logikaren arabera funtzionatzen duen eremu

---

18. Gainegitura kontzeptu edota dimentsioa, prozesu estruktural, kultura politiko orokor eta estatuaren egituraz osaturikoa, aukera politikoen egituraren sartu arren, ez dugu berraiatuko, jadanik egina baitugu.

ekonomikoak eskaerak kontutan hartzen dituen edo hartzen ez dituen, horren arabera da.

Baina, maiz, mugimendu sozial eta sistema politiko-administratibo zein talde politiko eta sozial instituzionalizatuen arteko harremanak bitartekari batzuen bidez ematen dira.

### 3.1.2. Komunikabideak eta mugimendu zein kontramugimenduak

Izan ere, ingurumenaren osagaien arteko harremanak bitartekari batzuen bidez ematen dira, nahiz komunikabide idatzi zein ikus-entzunezkoak izan. Sektore horren garrantzia «informazioaren pasabide pribilegiatu baina ez eskusiboa» (Fillieule 1992: 56) izatetik dator.

Mugimenduendako, komunikabideek militante eta kideekin komunikatzeak (barne mailan), jendetzaren zati handi bat informatuz mobilizazio-ahalmena hedatzeko eta oposatzaile potentzialak neutralizatzeko ekintzaren zentzua inposatzeko (kanpo-komunikazioa), aukera ematen du.

Horrez gain, barne-mailara etorri, komunikazioa, informazio-modu anitzetan oinarri daiteke. Adibide gisa, azken urte hauetan, Frantzia, erakundeen artean minitelaren erabilpenaren hedapena aipa daiteke, 1986ko ikasle-mugimenduaren kasuan bezala. Baina komunikabideen erabilpena are eta garrantzitsuagoa da kanpoareri harremanetan, ekintzan zehar mugimenduak, bizi ahal izateko, estatuaren sustengua edota publikoaren sinpatia xerkatu behar baitu, bai eta, bere ekintzaren legitimitate- zein errespetabilitate-irudia eman ere.

Baldin eta komunikabideen papera funtsezkoa bada konpromezu eta partehartze-prozesuak azaltzerakoan, eremu mediatikoaren berezko logika eta mugimenduek erabiltzen dituzten informazio- zein komunikazio-estrategiak aztertzea beharrezkoa agertzen da. Hori bera egin du Mercier-ek, Golkoko gerlaren aurkakoak ziren erakundeen eta telebista frantsesaren arteko harreman konfliktiboak aztertuz. Hain zuzen ere, berrien sortzean, baliabide desberdinekin, komunikabideek, estatuak eta mugimenduek parte hartzen dutela, erakusten du.

Izan ere, berrien sorrera prozesu interaktibo bat da, non mugimenduak, gradu desberdinetan, taktika-aukerak dituzten. Adibide gisa, protesta mugimenduek komunikabideen arreta erakar dezakete ekintza-modu ez tradizional bat erabiliz. Rochon-ek, adibide frango ematen ditu Britainia Handiko mugimendu bakezaleari sagaratu dion ikerketan.

Azkenik, mugimenduek erretreta-estrategia bat hauta dezakete, beren informazio-sareak ezarriz, 70.eko hamarkadan Estatu Batuetan suertatu zen moduan, non «underground prentsaaren garapen intentsoak ideologia erradikalaren zabalkuntzarako zein komunitate iraultzailearendako poloak batzeko balio izan zuen» (Fillieule 1992: 58).

Bestalde, azken osagaiak aipatuz, mugimendu sozialen garapena beste mugimendu edo kontramugimenduekiko harremanei loturik dago. Izan ere, hainbat autore, mobilizazio-prozesuan zehar kontramugimenduen sorreraz interesatu dira, baita, mugimenduen arrakasta edo porrotean daukaten eraginaz ere.

Horrela, Zald eta Useem, elkarrekintza horiek aztertuz, mugimendu eta kontramugimenduen arteko gatazka-moten zerrenda bat osatzen saiatu dira. Halaber, McAdam-ek eskubide zibikoen mugimenduaren defendatzaile zein aurkariak erabilitako taktika desberdinak jorratu ditu, mugimenduaren aktibitate-maila forma taktiko berrien sarrerarekin nola handitzen den erakutsiz, gero jaisteko, aurkariak taktika berriari dagokion estrategia egokitua martxan jarri dutelako.

Baina aukera politikoen egitura zehazki deskribatu badugu, mugimendu sozialak zein osagai edo sektoreekin elkarrekintzan sartu ahal litezkeen ikusiz, eta beraz, aukera eta baliabide potentzialki eskuragarriak zein diren ikusiz, deskribapen honek, ez du osagai bakoitzaren “denbora-eboluzioa” kontutan hartzen, ez eta testuinguru sozialetan osatzen diren aliantza- eta gatazka-sistemak ere.

### 3.2. Eremu multiorganizazionalak

#### 3.2.1. Eremu multi-organizazionalen funtzionamendua

Hasiera batetik azpimarra dezagun, “eremu multiorganizazional” kontzeptua bi zentzu eta mailatan erabil eta uler daitekeela: bata, mugimendu baten barneko erakunde desberdinen arteko harremanetan, eta bestea, mugimendu batek edota azken hau osatzen duten erakunde desberdinek ingurumeneko sektore edo osagai desberdinekin dituzten harremanetan.

Bigarren maila honetan ere, eremu multiorganizazionala aliantza- eta gatazka-sistemaz osatuta dago. Izan ere, lehen autoreak mugimenduak jaso ahal dituzten kanpo-sostenguez interesatu dira, sostengu horiek funtsezko

errola jokatzen dutela baliabideak ekartzekoan esanez, batik bat, botere edo indar sozial ahuleko taldeen-tzat.

Ildo horri segituz, MacCarthy eta Zald-ek (1973) mugimendu sozialen egituraketa profesionala edo *profesional SMO* kontzeptua sortu dute, kanpoko baliabideen jatorriaz karakterizatzen dena funtsean, aitzindariak, enpresari profesionalak izanik, ez baitaude mugimenduen helburuetan pertsonalki inplikaturik. Horrela, MacCarthy-k erakusten du, Estatu Batuetako abortoarekin kontrako mugimenduaren garaipena ez dagoela publikoaren sostengu edo adostasunari lotuta, baizik eta, Eliza katoliko zein fundamentalista protestanteek ekarritako laguntzari esker, horiek beren sareak mobilizatu dituztela dirutza zein lokalak beren disposizioan jarriz.

Baina, aliantza-sistemari gatazka-sistema gehitu behar zaio, jakinik, lehen esan bezala, biak harreman permanentean daudela, batak bestearen balore, helburu eta taktiketan eraginez. Hori dela eta, haien garapenean interdependetzia kontutan hartzea funtsezkoa da, izan ere, «mugimendu baten diskurtso mobilizatzailea ez da egoten sostengu aktibo edo potentzialei zuzenduta soilik, oposatzailei zuzenduta ere egoten da, eta elkarrekin aldatu diren hainbat argumentu elkarrekintza horretatik datoz» (Fillieule 1992: 62).

Gatazka-sistema: kontramugimenduz, sistema politiko-administratiboko agentzia berezietan, talde instituzional eta komunikabide zenbaituz osaturik egon daiteke. Hala izan zen Estatu Batuetan bai eta European ere, abortoarekin alde izandako hainbat manifestaldik beste hainbat kontra-manifestaldik erantzun ziotelarik. Hala ere, ikusgai diren gatazken gain, esan daiteke, mu-

gimendu bakoitzak gatazka-sistema berezi bat duela.

Azkenik, aliantza-sistema bakoitzean, erakunde desberdinen artean edo sareen manuperako konkurrentzian dauden erakundeen artean, gatazkak izan daitezke. Hain zuzen ere, Durand-ek ongi azaldu duen moduan, gerlaren aurkako lau kolektiboen arteko estrategia urruntzaileek eta haien konkurrentzi posizioek mobilizazioan eragina eduki dute.

Bestalde, eremu multiorganizazionalen forma ez da inoiz amaitua, aldatzeko baizik, mugimendu eta egoera aldakorren arabera birmoldatuz. Zehatzago izanez, baliteke gatazka edo aliantza-sistemaren konposaketa mobilizazioaren zikloaren aldaketak direla eta aldatzea, aktore tradizional instituzionalizatuenek, adibidez, zikloaren gailurrean parte hartzen baitute.

Oro har, esan dezagun eredu teoriko honek mobilizazioa edota mugimendua bere ingurumenean jartzen duela, bere osagaiak zehaztuz, baita osagai horiekiko harremanak aliantza zein gatazka-sistemetan inskribatzen direla erakutsiz ere.

### **Konklusioa**

Amaiera gisa, gogora dezagun, lehen zati edo parte batean, mobilizazioaren teoria klasiko garrantzitsuenen aurkezpen kritiko eta labur bat egin dugula, "jarrera kolektibo"-aren, eta zehatzago izanez, "kontagio" zein "konbergentzia" teoriak aztertuz lehenik, "baliabideen mobilizazioaren teoria"-ren korrante politiko eta ekonomikoak ondoren, eta azkenik, "mugimendu sozial berrien" perspektiban, Touraine eta Dubet-en teoriak.

Eta, bigarren zatian, teoria horien mugak direla eta, mobilizazioaren soziologia berri edota sintetizatzaile baten zirriborroa egiten saiatu gara, ikusiz, lehenik, zein diren mugimendu bat agertzeko modalitate eta baldintzak, ondoren, mobilizazio indibidualetik mobilizazio kolektibora nola pasatzen garen, eta azkenik, mugimenduen eta bere ingurumenaren arteko harremanak zein diren.

Oro har, atzerakako ikuspegi baten ildotik esan daiteke, osatutako ereduak mikro eta makrosoziologia mailak lotzen dituela, aktorea zein egitura-esferak kontutan hartuz, eta batez ere, haien arteko loturaz pentsatuz. Halaber, aktorearen ekintza-logika desberdinak, dimentsio psikosoziologiko zein prozesuen garrantzia kontutan hartuz, mobilizazioaren analisi multidimentsional baten eraikitsera iritsi gara.

Halaber, hasiera bat besterik ez bada ere, eta zehaztu, sakondu eta osatzeke badago ere, bere mugez gain, sistematizazio-gradu batera iritsi gara, mobilizazioaren teoria batendako oinarriak pausatuz, teoria sendo bat eraiki ahal izateko gerora begira.

Baina, hainbat galdera eta gairi erantzun-hasiera bat ekarri arren, beste hainbat jorratzeke daude oraindik. Horien artean, bizpahiru aipa genitzake. Adibide gisa, Mann-i segituz (1991), «talde antolatu bat nola hornitzen den erakunde batez» jorratu behar harko litzateke, eta ez soilik, soziologo gehienek egiten duten moduan, «jada finkatuta dagoen erakunde bateko indibiduo baten parte hartzearen baldintzetara».

Bestalde, komunikabideen erroak konplexua dirudi, komunikabideek lehen markaketa identitarioa egin ahal

badezakete, markaketa hori ez baita itsuki hartua mugimenduen aldetik. Oro har, publikoaren erreakzioa gertakizun "mediatiko"-en aurrean hobeto ulertzea, interesgarria izan daiteke.

Azkenik, aukera taktikoak, eta oro har, ekintza kolektiboaren erreperorioak interesgarri gerta dakizkieke ikerlariei. Nola inposatzen zaizkie taktikak aktoreei? Zein aukerak laguntzen dute beren erabilpena? Beren erreperorio ekintzaren mantentzea justifikatzen al du beren efikaziak? Zein mailatan hobetzen du aurkariak jarritako kontrol-aktibitateak mugimenduak bortxatzen dituen haien aktibitate taktikoa?

Orokorkiago, lehen ikusi dugun bezala, mobilizazioaren soziologiako teoriak bakarrik hartuz gero, haien mugak segidan agertu dira, analisi multidimentsional baten egitera bortxatuz, sintesi delako batean. Hortik abiatuz, ondorengo galdera pausatzeak legitimoa dirudi: nahi hori soziologia orokorrera transposa al daiteke?

Galdera ez da gaurkoa eta teoria totalizatzailearen proiektua alde batera utzia izan da Parsons-ek gerotik. Hala ere, badirudi, Touraine-ek, Dubet-ek zein Lapeyronnie-ek, eremu soziologikoaren zatiketaren aurrean (Frantzian batez ere), eta ikusiz paradigma bakoitza ez dela osotasunaren erantzun bat emateko gai, sintesi edo batasun teoriko batera joatea beharrezkoa dela uste dutela.

Beste era batera, objektu soziologiko desberdinak, analisi multiparadigmatiko baten bidez aztertu behar dira, hau da, paradigma bakoitzak objektu bera aztertuaz eta ondoren ezagutzak gehituz edo bata bestearen ondoan ezarriz; edo, maila teoriko desberdinak kontutan hartzen dituen sintesi teoriko baterantz joan beharko genuke bestela, teoria desberdinen edo batzuen alderdi interesgarriak atxikiz, mobilizazioaren teoria honetan egiten saiatu garen bezala. Galdera irekirik dago eta neronek ere ez daukat erantzuna argi.

## Bibliografia

- Agulhon, M. (1973): *1848 ou l'apprentissage de la République*, Seuil, Paris.
- Birnbaum, P. (1992): "Mouvements sociaux et types d'État", in *Mouvements sociaux et action collective*, PUF, Paris.
- Blumer, H. (1946): "Collective behavior", in A.M. Lee (ed.), *New outline of the principles of sociology*, Barnes et Noble, 167-222, New York.
- Chazel, F. (1975): *RHSP*, Paris.
- , (1980): *Revue Française de Sociologie*, 21 zkia., 653-658.
- , (1992): "Mouvements sociaux", in *Traité de sociologie*, 263-312, PUF, Paris.
- Davies, J.C. (1962): "Toward a theory of revolution", *American Sociological Review*, 27, 5-19 [Frantsesera itzulua: Birnbaum, P. eta F. Chazel (1971): *Sociologie politique*, 2. tomoa, 254-284, Armand Colin, Paris].
- Dollar, J. (1939): *Frustration and aggression*, Yale University Press, New Haven.
- Dubet, F. (1992): "Les nouveaux mouvements sociaux", in *Mouvements sociaux et action collective*, 61-69, PUF, Paris.
- , (1994): *Sociologie de l'expérience*, Seuil, Paris.
- Durand, J.P. - Weil, R. (1993): *Sociologie contemporaine*, Vigot, Paris.
- Durkheim, E. (1895): *Les règles de la méthode sociologique*, PUF, Paris.

- Duyvendak, J-W. (1992): *Le poids du politique: les nouveaux mouvements sociaux en France*, L'Harmattan, Paris.
- Etzioni, A. (1968): *The active society*, The Free Press, New York.
- Ferree, M. - Miller, M.: "Mobilization and meaning: toward an integration of social psychological and resource perspectives of social movements", *Sociological Inquiry*, 55 zkia.
- Fillieule, O. (1992): *Sociologie de la protestation : les formes de l'action collective dans la France contemporaine*, L'Harmattan, Paris.
- , (1995): "Sociologie de la mobilisation", *Sciences Humaines*, 9, 32-35.
- Gamson, W. (1975): *The strategy of social protest*, Homewood, Dorsey.
- Gurr, T. (1970): *Why men Rebel*, Princeton University Press.
- Hirschman, A. (1983): *Bonheur privé, action publique*, Fayard, Paris.
- Kitschelt, H.P. (1986): "Political opportunity structures and political protest", *British Journal of political Science*, 16. 57-85.
- , (1991): *Resource mobilization theory : a critique*.
- Kriesberg, L. (1973): *The Sociology of social conflict*, Englewood Cliffs, NJ, Prentice-Hall.
- Lapeyronnie, D. (1988): *L'Année sociologique*, 3. série, 33 zkia, 477-483.
- Le Bon, G. (1963) [1. ed. 1895]: *Psychologie des foules*, PUF, Paris.
- Mann, P. (1991): *L'action collective, mobilisation et organisation des minorités actives*, Armand Colin, Paris.
- Mc Carthy, J.D. - Zald, M.N. (1973): *The trend of social movements in America: professionalization and resource mobilization*, General Learning Press, Morristown.
- , (1977): "Resource mobilization and social movements: a partial theory", *American Journal of Sociology*, 82, 1212-1242.
- Melucci, A. (1983): "Los movimientos sociales en el capitalismo tardío", 6/7 zenb. uztaila-abendua.
- Oberschall, A. (1973): "Social conflict and social movements", Englewood Cliffs, Prentice-Hall [Frantsesera itzulia: Birnbaum, P. eta F. Chazel (1971): *Sociologie politique*, 231-241, Armand Colin, Paris].
- Olson, M. (1978) [1. ed. 1965]: *Logique de l'action collective*, PUF, Paris.
- Piven eta Cloward (1979): *Poor people's movements*, Vintage, New York.
- Rapport, A. (1967): *Combats, débats et jeux*, Dunod, Paris.
- Schemeil, Y. (1992): "Les cultures politiques", in *Traité de science politique*, 4. kap.
- Smelser, N. (1962): *Theory of collective behavior*, Free Press, New York.
- Snow, D.A. (1986): "Frame alignment processes, micromobilization and movement participation", *American Sociological Review*, 51 zenb. 464 - 481.
- Tarde, G. (1901): *L'opinion et la foule*, Alcan, Paris.
- Tilly, C. (1978): *From mobilization to revolution*, Reading, Addison-Wesley.
- Touraine, A. (1974): *Pour la sociologie*, Seuil, Paris.
- , (1978): *La voix et le regard*, Seuil, Paris.
- , (1984): *Le retour de l'acteur*, Fayard, Paris.
- Touraine, A., Dubet, F., Wieviorka, (1984): *Le mouvement ouvrier*, Fayard, Paris.
- Weber, M. (1917) [=1974]: *Le savant et le politique*, 10/18, Paris.